DANTZARIAK 59

ZUZENDARIA
Josu Larrinaga Zugadi

ERREDAKZIO BATZORDEA
José Patricio Aldama
José Alfonso Antequera
Xabier Etxabe

MAKETAZIOA
Lucía Calvo

AZALAREN ARGAZKIA:
Carlos Ortiz de Zárate

IMPRIMAKETA
Grafícas Irudi

ARGITALETXEA
Euskal Dantzarien Biltzarra
Luis Briñas, 31 behea
48013 BILBO (BIZKAIA)

LEGE GORDAILUA
SS-509-1970

URTEA:
2014

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARREKO KOORDINAZIO OROKORRA

Tel. 0034 690 812514
edb-koordinazio@hotmail.com
www.dantzagune.org

ORDEZKARITZAK

ARABA
Tel. 00 34 945 259615
adb@arabako.com

BIZKAIA
Tel. 00 34 94 4418563
dantzanet@gmail.com

GIPUZKOA
Tel. 00 34 943 289848
gipuzkoakoedb@gmail.com

IPARRALDE
Tel. 00 33 559 933365
iparraldekodantzarienbiltzarra@gmail.com

NAFARROA
Tel. 0034 649 559 854 / 00 34 619 009 940
nafarroakoedb@hotmail.com

Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

AURKIBIDEA
DANTZARIAK 59 ~ 2014

AGURRA

6 EDITORIALA
EDITORIAL

EKINTZAK

8 Oiartzunen ospatu zen 2014ko Euskal Herriko DANTZARI EGUNA

12 URRIJENA EGUNA 2014, Iurretan

14 GAZTEMUNDU 2014

GURE TALDEEN URTEURRENAK

18 LORE GAZTEAK
Dantza Taldea

20 KRISKITIN
1987-2012

22 TRONPERRI
Dantza taldea

GURE TALDEEN URTEURRENAK

24 ITXAS ARGIA
Dantza taldea

26 ORRITZ
Dantza taldea

28 ALKARTASUNA
Euskal Dantza Taldea

GURE TALDEEN URTEURRENAK

30 SALLEKO
Dantza eta
Txistu taldea

ELKARRIZKETA

34 EUSKAL DANTZARIEN BILTZARREKO LEHENDAKARIA
Joseba Altube Basterretxea

ARTIKULUAK

38 HARRESI.ORG
Ventana multicultural de
las Encartaciones vizcaínas

ARTIKULUAK

41 XIBEROKO
Dantzak eta Dantzariak

43 Abaltzisketako
TXANTXO
DANTZA

48 Presencia de la
NATURALEZA
EN EL FOLKLORE

ARTIKULUAK

56 Recuperación del PALOTEADO DE FUSTIÑANA

59 EL KATXI
El Katxi, Katximorro o Bobo en nuestros festejos

74 FRANCISCO BERUETE
y las danzas de Estella - Lizarra

ARTIKULUAK

88 Tradición de las CALAVERAS Y CALABAZAS
en Bizkaia

98 ANTONIO AGIRRE
ehun urte soinu onez



102 "ATOR, ATOR MUTIL ETXERA"
una versión de 1858

ARTIKULUAK

106 Orioko SILLA~DANTZA

ARGITALPENAK

116 LIBROS, CDS Y DVDS

EDITORIALA

Dantzariak publikazioaren aurreneko zenbakiak atera zirenez geroztik, behin eta berriro izan dira hizpide aldizkariaren garai berriak. Egia esan, hainbat gorabehera medio, aldizkaria unean uneko eskakizunetara moldatu behar izan da; hori dela eta, haren erritmoa oso aldakorra izan da eta ez du presentzia erregularrik izan.

Gauzak horrela, ez gara hasiko esanaz aldizkariarentzan garai berriak datozela, baina esan genezake orain dela urte dexente kontsentsuz onartutako Euskal Dantzarien Biltzarraren proiektu zahar hari berriro indarrez eta ilusioz helduko diogula, talde multidiziplinar bat lagun; eta ikuspegia tradizionala nahiz ohituren gainekoa izanagatik, ikuspegi zabalagoz eta luzaroan irauteko bokazioz hasiko garela martxan. Alegia, aspaldiko ardo ondua, zahagi berrietan.

Ikuspegi horren fruitua izango da, dantza tradizionala aztertzeaz gain, herri-kultura osotasunean aztertzea: gertakizun soziokulturalen testuinguruak analizatzen dituzten arloak aztertuz; ikerketa konparatiboak; hainbat klasetako artisautza nahiz elaborazio tradizionalak (musika tresnak, jantziak, material osagarria eta dekoraziokoa, gastronomía); ohiturazko festa eta ospakizunak; antzerkia eta dantza; eta sistema metodologikoak, egungo errealitate soziala modu egokian beregain hartuko dutenak.

Erredakzio Kontseilua deituko diogun erredakzio talde egonkorra osatzea da beste helburuetako bat, bere inguruan kolaboratzaile-sare finkoa bilduko duena eta, ahal den heinean, noizbehinkako aportazioak ere bilatuko dituena.

Aldizkariaren egitura, lehen bezala, sailez osatua egongo da. Dibulgazio-artikuluak eta kultura tradizionalarekin lotutakoak izango dira, batik bat, bultzatuko direnak. Izango da horretaz aparteko informaziorik ere (aktibitateak, ekitaldiak, nobedadeak, etab.) eta baita erreportajeak ere (dantza taldeak, erreferentziazko pertsona nahiz erakundeak). Aintzakotzat hartuko dira, horietaz gain, festa-egutegi folklorikoa, musika- nahiz argazki-artxiboen aurkezpena eta, baita ere, eztabaida-foroak, hausnarketak eta iritziak. Modu horretan, berrogeita hamar aletik behin, aldizkariak eta haien edukiak katalogatzen segitzeko aukera izango da berriro ere.

Funtsean, lortu nahi dena da dantza taldeen eguneroko lanari erreferentziazko espazio bat eskaintzea: leiho ireki bat norbanako nahiz taldeko aportazioari. Topagune bat. Kezkatzen gaituzten gaien inguruko hausnarketa patxadatsua. Eta, batez ere, kulturaren esparruan lanean gabiltzan pertsona nahiz kolektiboentzat kohesio sozialerako bitarteko bat.

Bukatzeko, animatu nahi ditut talde eta norbanako guztiak aspaldiko proiektu honetan parte har dezaten, esateko daukaten horrekin bere aletxoa jarriz. Bide batez, aitortu nahi diot Erredakzio Kontseilua osatzen duen pertsona bakoitzari egiten duen eskertu ezineko lana. Zenbaki honetan aurkituko ditugun artikuluen egile guztiei ere, nire esker ona. Aitortu nahi dut, azkenik, aldizkaria aurrera ateratzen lagundu dutenen lan isila, baina behar-beharrezkoa.

Josu Larrinaga Zugadi

"Dantzariak"en Zuzendaria

EDITORIAL

Una y otra vez, desde la publicación de las primeras Dantzariak, se ha venido hablando de nuevas épocas para la revista. La verdad es que, debido a diversos avatares y dinámicas puntuales, el devenir de la misma se ha tenido que ajustar a cada momento, manteniendo una irregular presencia, presentando ritmos muy desiguales.

Por lo tanto, evitando el tópico de incidir en la determinación de una nueva época de la revista, vamos a retomar la tarea consensuada hace años a este añejo proyecto de Euskal Dantzarien Biltzarra, con un equipo multidisciplinar y una ilusionadora implicación, dando el tratamiento tradicional o habitual pero desde una perspectiva más global y con intención decidida de continuidad. Es decir, retomar viejas fórmulas con renovada sabia.

Dicha visión se materializará en abordar, no sólo la danza tradicional, sino la cultura tradicional en su conjunto: todos los aspectos que tratan de analizar los diversos contextos de los hechos socioculturales; los estudios comparativos; las distintas artesanías o elaboraciones tradicionales (instrumentos musicales, indumentaria o materiales complementarios y de decoración, o gastronomía); fiestas y celebraciones costumbristas; teatro y danza; y los sistemas metodológicos, para un encaje certero en la realidad social circundante actual.

El otro de los ejes de actuación consiste en la constitución de un equipo de redacción estable, denominado Consejo de Redacción, la consecución de una red estrecha de colaboradores habituales y, en la medida de lo posible, la búsqueda de aportaciones esporádicas y puntuales.

La estructuración de la revista seguirá con su fisonomía clásica en secciones. Se fomentarán, en especial, los artículos de difusión y divulgación de los temas relacionados con la cultura tradicional. Se contrastará con las informaciones más variopintas (actividades, eventos, novedades, etc.) y reportajes (grupos de danza, personas o colectivos referenciales). Todo ello sin olvidar el calendario festivo folclórico, la presentación de archivos de música y fotografía o, incluso, la reflexión y sondeos de opinión o foros de debate. Lo cual proporcionará el poder seguir catalogando las revistas y sus contenidos, cada medio centenar de números.

En definitiva, se trata de tener un espacio de referencia cara a la labor diaria de los grupos de danza, una ventana abierta a la aportación personal o grupal, un punto de encuentro y reflexión sosegado sobre temas que nos inquietan o preocupan y, sobre todo, un medio de cohesión social de las personas y colectivos que trabajamos en este campo de la cultura.

Para finalizar, quisiera animar a todas las entidades y personas a participar en este veterano proyecto y a contribuir con sus interesantes aportaciones. Aprovecho la ocasión, para reconocer la inestimable labor de todas y cada una de las personas que componen el Consejo de Redacción, así como la de todos/as los/as autores/as de los artículos de los que podemos disfrutar en este número y la labor callada, pero insustituible, de la gente que ha ayudado a que la revista salga adelante.

Josu Larrinaga Zugadi

Director de "Dantzariak"

OIARTZUNEN OSPATU ZEN 2014KO EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA

- Egilea: Cristina Martínez. Argazkiak: EDBko artxiboa -

El pasado 26 de octubre tuvo lugar en Oiartzun una nueva edición del "Euskal Herriko Dantzari Eguna", un acto organizado por Euskal Dantzarien Biltzarra en el que diversos grupos de danza tradicional de Euskal Herria se reunieron en un ambiente festivo y rebosante de danza. Durante toda la jornada, en la que el buen tiempo acompañó, las calles de la localidad guipuzcoana estuvieron repletas de música y danzas que deleitaron a todos los asistentes. Unos 1000 "dantzaris" de 33 grupos diferentes provenientes de toda Euskal Herria ofrecieron un espectáculo lleno de alegría y color. El ya habitual evento tuvo un gran éxito de participación y una acogida realmente buena tanto por parte de los "dantzaris" y sus acompañantes así como por parte de los vecinos de Oiartzun.

Le 26 octobre dernier a eu lieu la dernière édition d "Euskal Herriko Dantzari Eguna", où plusieurs groupes d' Euskal Herria se sont réunis dans une ambiance festive et pleine de danse. Pendant toute la journée, le temps était au beau fixe et les rues de la ville gipuzcoane remplies de musiques et de danses qui ont charmé tous les spectateurs. Près de 1000 "dantzaris" de 33 groupes différents provenant de tout l'Euskal Herria ont offert un spectacle plein d'énergie et de couleur. Cet événement habituel a eu un grand succès et un accueil vraiment bon, autant de la part des "dantzaris" et de leurs partenaires, ainsi que des habitants d'Oiartzun.



Egun guztian zehar, Hegoaldeko eta Iparraldeko hogeita hamahiru dantza taldetako 1.000 dantzari inguruk Oiartzungo kaleak alaitu zituzten, ikuskizun ederra eta koloretsua eskaintzen zuten bitartean. Giro ezin hobea zegoela, dantzazale eta auzokide ugari hurbildu ziren dantzarien emanaldiekin gozatzera. Eguraldia lagun, festa egun bikaina izan zen aurtengo Euskal Herriko Dantzari Eguna.

Ekitaldia goizeko 11:30ean hasi zen dantzarien desfilearekin Oiartzungo kaleetan barrena, geroago, 12:00etan, Oiartzungo plazetan (Doneztebe eta Landetxe plazetan) dantza emanaldia izan zen. Goiza behar den moduan osatzeko, 13:30ean dantza talde guztien topaketa izan zen Doneztebe plazan saio erraldoia egiteko. Arin-arina, Fandangoa eta Larrain dantza eskaini zituzten azkenerako. Dantza egin ondoren, 14:30ean herri bazkaria izan zen Haurtzaro ikastolako frontoian.

Jardunaldiari amaiera emateko, arratsaldeko 17:00etan erromeria egon zen Luhartz taldearekin. Erromeriak alaituta, plaza berehala bete zen herrialde guztietako dantzariekin eta baita hainbat herritar eta dantzazaleekin ere. Ehunka lagun hurbildu ziren egun berezi hau ospatzeko asmoz.

Dantzari Eguna duela 47 urte ospatu zen lehendabizikoz (1967. urtean) euskal folklorea omentzeko, eta, geroztik, urtez urte jarraitu dute egiten. Hala ere, Hego Euskal Herrian, Iruñean 1978. urtean ospatu zen, modu bateratuan, lehen Dantzari Eguna. Garaiak aldatu diren arren, ekintza honen helburuari eutsi egiten dio urtero Euskal Dantzarien Biltzarrak, egunaren antolatzaileak. Jai hau folklorea eta dantzaren aberastasuna erakusteko tresna on bat dela uste dute.

Pasa den urriaren 26an argi ikusi zen Euskal Herriko dantza taldeek urtean zehar egiten duten lana. Taldeek herrialde desberdinetan sentimendu handiz mantentzen diren dantzak eskaini zizkioten Oiartzunera hurbildu zen jendeari.

Enara Iruretagoienaren hitzetan, Euskal Dantzarien Biltzarraren koordinatzailea, "egun zoragarria izan zen, goizean goiz eguzkia atera zen eta egun guztian zehar eguraldi ederraz gozatu ahal izan genuen. Euskal Herriko herrialde guztietako dantza taldeak etorri ziren eta desfilea eta ekitaldia espero zen bezala atera ziren, aldez aurretik, antolakuntza lan bikaina egin baikenuen. Haurtzaro Ikastolan bertan egindako Herri bazkaria ere primeran atera zen. Azkenik, erromerian jende askok hartu zuen parte. Oso pozik gaude".

Iruretagoienak azaldu zuenez jende guztia oso pozik egon zen, boluntarioek eta Olarri Dantza Taldekoek egin zuten lana izugarria izan zen, baita ere Oiartzungo Udaletxearen laguntza. "Ikusle dezente zegoen eta dantzariek beraien hoberena eman zuten. Balorazioa oso baikorra izan da, laguntzaile boluntario pila egon ziren, Olarri Dantza Taldeko kideak, Oiartzungo Udaletxekoak... Jada datorren urtekoa prestatzen ari gara gogo handiz eta aurtengo edizioak izan duen harrera bezain ona izatea espero dugu".

Datorren urtean Euskal Dantzarien Biltzarraren 50. urteurrena izanik, Joseba Altubek EDBren lehendakariak, dantza talde federatu guztiak animatzen ditu Nafarroan ospatuko den EHDE-2015ean parte hartzen.

URRIAREN 23TIK 26RA

Nahiz eta egun nagusia urriaren 26a izan, aurreko egunetan ere hainbat ekitaldi egin ziren Oiartzunen. Urriaren 23an, osteguna, Ramón Garciak "Euskal baserritarren jantzia" hitzaldia eman zuen, bertan buruko zapiak jartzeko modu egokiak erakusteaz gain (tailer praktikoaren bidez), jantziaren berezitasunei buruz jardun zuen udaletxeko areto nagusian. Izan ere, oraindik ezjakintasun handia dago eta akats asko ikusten dira zentzu honetan. Larunbatean, urriaren 25ean, berriz, arratsaldeko 19:00etan "Dantza plaza" dantzaldia egin zuten Doneztebe plazan, Aitziber Aiesta eta Fernando Ruiz dantza maisuen gidaritzapean. Musika zuzenean izan zen, Lartaun txistulari taldearen eskutik. Bertara hurbildu ziren guztiak dantza herrikoiak ikasi eta dantzatzeko aukera izan zuten.

OLARRI DANTZA TALDEA

Euskal Herriko Dantzarien Eguna urtero herrialde ezberdin batean egiten da, eta, aurten, Oiartzuneko herria arduratu zen egun hori ospatzeaz. Olarri Dantza Taldeko Izar Etxebarriak adierazi zuenez, eguna Oiartzunen egitea aurrerapausoa izan zen sortu berri den taldearentzat. Etxebarriak Haurtzaro Ikastola eta Elizalde Ikastetxea eskertu nahi izan zituen eguna aurrera ateratzen laguntzeagatik. Euskal Dantzarien Biltzarra, jaiaren antolatzailea, aurten Olarri Dantza Taldearekin eta Haurtzaroko nahiz Elizaldeko Dantza Taldeekin elkarlanean aritu da.

Euskal festa handi hau Oiartzunen egiteak bazuen bere arrazoia. Izan ere, aurten Oiartzunen Olarri Dantza Taldea sortu berri da 16 urtetik gorako 40 dantzariekin. Beraz, talde berri honekin, Haurtzaro eta Elizaldeko Dantza Taldeetan ibili ondoren, dantzan jarraitzeko aukera badute Oiartzungo dantzariek.

2014ko Euskal Herriko Dantzari Eguna Oiartzungo Olarri talde berriaren lehen agerraldi publikoa izan zen. Talde berriak oso maila ona erakutsi zuen, ederki osatu baitzituen dantza ezberdinak. “Oso pozik gaude egindako saioarekin, urduri-urduri geunden, baina dena primeran atera zen. Euskal dantzarien festa handia antolatzen lan handia egin dugu, baina gustura gelditu gara dena ederki bukatu delako” azpimarratu zuten dantzari oiartzuarrek. *(El Diario Vasco egunkaritik hartutako adierazpena)*.

Nagore Ugaldeberek, Olarriko Dantza Taldeko presidenteak, aitortu zuenez, egunaren amaieran beste herrialdetako ordezkariak eskerrak eman zizkieten, oso pozik ibili baitziren Oiartzunen.

“Lan handia izan da, baina merezi zuen. Dena primeran atera zen eta Oiartzun herria horrelako jaiak antolatzeko gai dela erakutsi dugu beste behin ere”, adierazi zuen Asier Legorburu Kultura zinegotziak. Bereziki, Oiartzun Dantza Taldeko kideei eskertu zien egindako lana. (El Diario Vasco egunkaritik hartutako adierazpena).

Dantza taldeentzat Euskal Herriko Dantzari Eguna antolatzea aukera paregabea da eta horrelako jai garrantzitsu bat aurrera eramateko gai direla erakusteko aukera dute. Azken finean, aurrerapauso handi bat da Euskal Herriko dantza taldeentzat.

ORDEZKARITZA GUZTIETAKO PARTAIDEAK

Aurtengo Euskal Herriko Dantzari Egunean parte hartu zuten Bizkaiak, Arabak, Gipuzkoak, Behe Nafarroak eta Nafarroako dantzariek, hau da, bost ordezkaritzetako taldeak etorri ziren, guztira 33 Dantza Talde.

Bizkaitik hamabi talde joan ziren: Arriskugarri Dantza Taldea (Sestao), Danetarako Danok Dantza Taldea (Trapagaran), Elai Alai Dant-

Nafarroa

Nafarroa Beherea

za Taldea (Gernika Lumo), Etorki Dantza Taldea (Ugao), Etorkizuna Dantza Taldea (Lekeitio), Gaztedi Dantza Taldea (Bilbo), Gorantzaileak Dantza Taldea (Sondika), Itxas Argia Dantza Taldea (Getxo), Laguntasuna Dantza Taldea (Barakaldo), Oinarin Dantza Taldea (Usansolo), Trabudu Dantza Taldea (Astrabudua) eta Uri-oste Dantza Taldea (Ortuella).

Bizkaiko taldeek alde batetik, Landetxe plazan zein Doneztebe plazan Dantzari dantzaren bost dantza dantzatu zituzten: Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata joku txikia, Makil jokua eta Txontxongilo. Beste alde batetik, Gorulariaren Arku dantza eta Domingilo ere eskaini zituzten.

Arabatik zazpi talde: Adurtza Dantza Taldea (Gasteiz), Eguzkilore Dantza Taldea (Gasteiz), Haize Dantza Taldea (Dulantzi), Ioar Dantza Taldea (Kanpezu), Jare Dantza Taldea (Gasteiz), Untzueta Dantza Taldea (Areta) eta Urkabustaizko Dantzariak (Izarra). Hauek Ziekoko dantzen "El árbol" eta "Jota" eta Eskuernagako makil dantzen "Te vi" eta "El culo" eskaini zizkieten Landetxe plazara hurbildu ziren guztiei. Gainera, Bercijanako, Ama Birjinaren kate dantza, Jota "la perra" eta Lezeako Zortzikoa ere dantzatu zituzten.

Gipuzkoatik, berriz, zortzi talde joan ziren: Eraiki Dantza Taldea (Irun), Ereintza Dantza Taldea (Errenteria- Orereta), Eskola Dantza Taldea (Donostia), Goizaldi Dantza Taldea (Donostia), Murixka Dantza Taldea (Lezo), Sustraiak Dantza Taldea (Legazpi), Trebeska Dantza Taldea (Donostia) eta sortu berria den Oiartzuneko Olarri Dantza Taldea.

Dantzari Eguna duela 47 urte ospatu zen lehendabizikoz (1967. urtean) euskal folklorea omentzeko, eta, geroztik, urtez urte jarraitu dute egiten.

Gipuzkoako dantzariek Zinta dantza, Boastitzea, Makil txiki, Ormatxulo, Belauntxingo eta Agurra dantza gipuzkoarrak dantzatu zituzten Landetxe plazan.

Nafarroari dagokionez, lau taldek hartu zuten parte: Agoizko Dantzari Taldeak (Agoitz), Basakaitz Dantza Taldeak (Iribas), Oberena Dantza Taldeak (Iruña) eta Txori Zuri Dantza Taldeak (Berriozar). Talde hauek Iribaseko ingurutxoa eta Tuterako Jota dantza nafarrak eskaini zituzten.

Azkenik, **Iparraldetik** bi talde joan ziren: Behe Nafarroako Burgaintzi Dantza Taldea (Arboti) eta Iruski Dantza Taldea (Gabadi).

Behe Nafarroakoek Soka dantza, Euskaldunak, Sorginak eta Kuadrila eskaini zizkieten Euskal Herriko Dantzari Egunera hurbildu ziren dantzazale guztiei.

Elizalde Herri eskolak, Haurtzaro ikastolak, Olarri Dantza Taldeak, Oiartzungo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Eusko Jaurlaritzak babestu zuten eguna, Carrefour eta Laboral Kutxa enpresekin batera. Euren babesa eta laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke 2014. urteko Euskal Herriko Dantzari Eguna aurrera eramatea.

URRIJENA EGUNA 2014, IURRETAN

Urrijena eguna oso egun garrantzitsua izaten da iurretar guztiontzat. Bost urtetik behin ospatzen den jai eguna da eta urriko bigarren domekan ospatzen da. Egun honetan herriko dantzari izan diren gizonezko jenerazio guztiak dantzara irten izan dira plazara. Bada, pasa den San Migeletan bezala, gauzak aldatu egin dira lehenengo Urrijena ospatu zenetik 25 urte pasatu diren honetan.

- Egilea: Urrijena Batzordea. Argazkiak: Iurretako Dantzariak -

2014ko Urrijena eguna

Jada urte bete pasatu da, Iurretako jaietan Dantza Taldeak parekidetasunaren alde eman zuen pausotik, izan ere, joan den urteaz geroztik aurrera dantza-saio guztietan mutil dantzariak parte hartzeaz gainera, neska dantzariak ere agertzen dira plazan. Hori dela eta, Urrijena egunean ere neska dantzariak gonbidatu genituen, neskak ere dantzari diren legez. Horrela 300 dantzari elkartu ginen, 16 urtekoa gazteena eta 85ekoa helduena.

Erabaki honekin lortu nahi genuen helburu nagusiena Iurretan dantzan egindako pertsona orok, jai-giroan, denok elkarrekin, egun eder bat pasatzea izan zen. Era honetan, Urrijenako jai-giroa handitzeaz eta aberasteaz gainera, hain beharrezkoa den parekidetasunerantz beste pausu bat emanez.

Zer da ba Urrijena dantzarien erdiak faltan baditu?

2014ko Urrijena eguna

Lan asko egin ostean azkenean heldu zen denok itxoiten genuen eguna, urriaren 12a, Urrijena eguna. Eta espero bezala dena oso ondo irten zen. Eguraldiak lagunduta, goizean goizetik hasi genuen eguna. Goizeko 9:30etan denok elkartzeko ordua jarri genuen taldeko argazkia ateratzeko, Mugarra mendia atzean geneukala, eta 10:30ak aldera Iurretako Montoitik Plazara kalejira hasi genuen. Talderik gazteenak zabaldu zuen bidea eta helduenak joan ziren atzetik bandera eta guzti. Meza ostean dantza saioari ekin genion, dantza saio berezia oso, betiko legez Dantzari Dantza egiteaz gainera, honen ostean Gorulari Dantza egin baikenuen denok elkarrekin, ahoan sartu ezin daitekeen irribarrea geneukala dantzari guztiok! Jarraian 65 urteko dantzari guztiei omenaldi polit bat egin zitzaien oroigarri eta guzti joan zitezen etxera eta ekitaldia amaitzeko andre eta gizonek egindako Soka Dantza dantzatu genuen gura zuten guztiak soltea egitera gonbidatuz.

Horrelako egun eder bat hobeto amaitzeko, baina, zer hobe denok batera bazkaltzen joatea baino? 259 andre eta gizon elkartu ginen Iurretako herrian bertan jarri genuen karpa handi baten barruan bapo-bapo bazkaltzeko! Eta bapo bazkaldu ere! Erre ziren bildots guztietatik askorik ez zen soberan geratu eta!

Bazkarian berriketaldi galantak bota genituen elkarrekin gaztetako garaiak gogoratuz askok edo egun horrek aspaldi ikusi gabeko taldeak elkartzea ekarri zuela komentatuz beste askok. Bazkal ostean Oxabi taldearen erromeriarekin eta txistulariekin batera hainbat banango, txotxangilo eta solte ere dantzatu genituen elkarrekin eta zelan ez, herritik ere poteo bat egin genuen bazkarian gutxi edan genuelako edo…

Bakoitzak gura izan zuenean amaitu zuen eguna. Arinago batzuk, beranduago beste batzuk baina denok ere oso pozik eta bost urte barru berriro ere elkartzeko gogo itzelarekin!

Beraz, neska, mutil, andre eta gizon, bost urte barru berriro ere denok ikusiko dogu elkar Iurretako Plazan Urrijena egunean!

2014ko Urrijena eguna

GAZTEMUNDU 2014

Dantzaren irakaskuntza lantzeko 25 gazte etorri dira Euskal Diasporatik Eusko Jaurlaritzaren Gaztemundu programan

- Egilea: : José Manuel Meaurio Antón. Argazkiak: Gaztemundu 2014 -

Eusko Jaurlaritzaren egitasmo hau 2014ko uztailaren 5etik 20ra luzatu da, aurten euskal dantzen irakaskuntzaren hobekuntza landu du, eta Argentinako, Estatu Batuetako, Txileko, Espainiako eta Uruguaiko euskal jatorriko 25 gazte etorri dira

Eusko Jaurlaritzako Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzak **"Gaztemundu"** programa antolatzen du, munduko Euskal Etxeetako gazteak Euskadin egonaldi bat egin eta gaurko euskal errealitatera hurbil daitezen. Egonaldian, euskal jatorriko gazte horiek parte hartu behar dute eurentzat antolatzen diren ikastaroan, urte bakoitzean gai bati buruz, eta egituratuta adituek emandako klase magistraletan eta bisitaldietan erakundeetara eta enklabe kultural garrantzitsuetara.

Programak aurten **"euskal dantzei"** ekin die, helburua dela goi mailako heziketa eskaintzea dantzariei eta munduko euskal etxeetako dantza-taldeen arduradunei.

Aurtengo edizioan, Donostian oinarrituta baina bisitekin beste euskal lurraldeetara, aukeratutakoen zerrendan Argentinako 15 parte-hartzaile, Estatu Batuetako 6, Txileko 2, Espainiako 1 eta Uruguaiko beste 1 egon dira.

EUSKAL DIASPORATIK ETORRITAKO 25 GAZTE

Guztira 25 gazte. Oier Araolaza dantzaria buru duen adituen talde batek eman dizkie saioak. Programan klaseak, topaketak eta txangoak sartu dira: Donostian, Añorgan, Lesakan, Errenterian, Hondarribian, Markinan, Bilbon eta Gasteizen.

Behin eta Euskal Herrira heldu, harrera eskaini zien lehendakariak Gaztemunduko parte hartzaileei. Gasteizen, Lehendakaritzan bertan bildu eta elkarrekin solasteko aukera izan zuten. Ekitaldian soka-dantza egiteko asmoarekin, soka-dantza prestatzen aritu ziren diasporako dantza irakasleak goiz partean.

LESAKAKO SAN FERMINETAN

Gero, Lesakako San Ferminetan hasi zen astea Gaztemundutarrentzat, eta Iruñeko San Ferminetan borobildu zuten, bertan ere izan baitziren. Festaz gozatzeaz gain, San Ferminetan ohikoa izaten den Txistulari Alardean izan ziren.

Aurreko orduetan, Lesakan, bertako dantzak, bere egunean eta bertako dantzarien eskutik ikusi zituzten. Pozez gainezka ibili ziren diasporako dantza irakasleak. Ez da harritzekoa, Lesakako San Fermin eguna euskal tradizio koreografikoen artean ederrenetarikoa baita.

Gipuzkoako dantzak ikasten. Argazkia: Eire Vila / Dantzan CC AT-SA. (2014-07-11)

Halaber, Arabako lautada izan dute aztergai Gaztemundu programan parte hartu duten Diasporako irakasleek, eta baita Dantzan Ikasi programan parte hartu dutenek ere.

Horrez gain, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko hainbat dantza-eredu ikusi eta ikasi ostean, Gasteizko Udal Folklore Akademiako irakasleekin aritu ziren.

BIZITZA OSOKO AUKERA PAREGABEA

Oier Araolazaren esanetan, 2014ko Gaztemundu programako koordinazioaren ardura izan duen dantzari, aditu eta irakasleak, "Diasporako dantzarien maila hemengoaren berdintsua da; badira oso onak, erdipurdizkoak eta justutxoak. Hain zuzen ere, hemengo taldeetan gertatzen den bezala", esan du Oier Araolazak.

Hala ere, maila oso ona dutenak Euskal Herrian aritzen diren onenen parekoak direla dio. Aurten, Gaztemundu ikastaroak iraun dituen bi astetan informazio zaparrada jaso omen dute dantzariek, "hemengoek ere ez daukagun ikasteko aukera trinkoa izan dute aurtengo edizioko Gaztemunduko dantzariek", azpimarratzen du Araolazak.

Bosgarren atalean, Gipuzkoan, tradizioz iritsi zaizkigun urratsak eskaini ziren, haiekin sortutako aldairak eta hauek elkarren atzean ordena jakin batean emanik osatzen dituzten dantzak, jakina. Hain zuzen, Iztuetatik Olanora, Pujanatarrenetik igaro eta Gordejuela abizenen tradizioa, gaur egunera iritsi dena.

TEORIA ETA PRAKTIKA UZTARTZEN

Ezpata-dantzei begira esnatu zen Gaztemundu programaren erdialdea. Ezpata-dantzak, eta zehazki katean, sokan egiten diren ezpata-dantzen nondik norakoak aztertu zituzten Oier Araolazaren laguntzarekin. "Hilt and point" edo "helduleko eta punta" erako ezpata-dantzen historia, hedadura geografikoa eta figura koreografikoak.

Teoria eta praktika uztartzeko eguna gertatu zen uztailaren 16an, Karmen egu-

Soka dantza ikasten. Argazkia: Dantzan CC AT-SA. (2014-07-09)

na, Gaztemunduko partaideentzat; goizean euskal dantzetako sinbologia aztertu zuen hitzaldia entzun, eta ondoren, hitzaldian aipatutako dantzak zuzenean ikusteko aukera izan zuten.

Bizkaian, aldiz, Galdakaon hain zuzen ere, dantzari-dantza, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo hedapen eta erabilera handienetakoa izan duen errepertorioa lantzeko aukera eskaini zuen Andra Mari dantzari taldeak eskainitako ikastaroak. Programaren azken txanpan Mikel Goitia, Kepa Artetxe eta Jon Eguskiza hurbildu ziren.

Maritzuli konpainiako Jon Iruretagoiena eta Claude Iruretagoiena dantza-maisuen eskutik, egun bete eta mamitsua bizi izan da, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako dantzen inguruko xehetasunak landuz, "Lau urrats eta kitto!" dantzaren irakaskuntzarako sistema pedagogikoa ezagutuz.

EUSKAL KALIFORNIAR BATEN TESTIGANTZA

Azken ikastaro eguna heldu zen. Errenteriara joan eta Dantzagunean Aiko taldeko Patxi Laborda zuten zain Gaztemunduko eta Dantzan ikasiko ikasleek. Azken bi mendeetan errometako dantzetan izan den bilakaera elkarrekin egitera gonbidatu zituen Patxi Labordak.

Bertan Ann Errecak, Los Banos-eko (Bakersfield country musikaren gotorlekutik urruti ez dagoen herria) euskal jatorriko emakumeak, zera esan zuen negar anpuluetan: Itzela izan da, sekula ez dut ahaztuko visita Kanalara (Urdaibain, Bizkaian), nire aurrekoen jaiotetxera.

Kaliforniako arrantxu giroko herria da Los Banos, kabalak eta abelzaintza eta nekazaritza eta ortu zabalak aberastasun diren eremua, eta hortxe jaio zen Ann Erreca duela 53 urte.

Irakaslea da Ann, irakurketa arazoak dauzkaten haurren arretan espezialdua. Baina hirugarren belaunaldiko euskal-kaliforniarra ere bada, bertako familien euskal giroan sortu eta hazia, dantzaria (horretan amatxiren oinordeko) eta Los Banosko Euskal Etxeko dantzarien irakasle azken hogei urteotan.

Dantzariak Xemeinen. Argazkia: Oier Araolaza / Dantzan CC AT-SA (2014-07-12)

Arrasateko

LORE GAZTEAK DANTZA TALDEAK

50 urte: izena eta izana

2014ko urriaren 25ean ospatu zituen Arrasateko Lore Gazteak Dantza Taldeak 50 urte; 50 urte ez dira nola nahi betetzen. Hasiera ez zen erraza izan baina orduko hazia ondo hasi dela ikus daiteke gaur egun.

1966-1967 ikasturtean heldu ziren Bizkaialdetik zein Urola Garaitik mutiko talde bat, dantzetan arituak. Baina ordurako bazen Zigarrolako auzoan neska talde bat astero biltzen zena jotak dantzatzeko. Arrasatera ikastera etorritako mutilen harremanetarako erraztasunak bildu zituen denak euskal dantzak ikasteko gogo eta nahietan. Hala hasi ziren bada entseguak egiteko mugitzen.

Arrasateko Eskola Profesionaleko bulegoetako sotoetan hasi ziren entseguak egiten. Hastapenetan, neskak ziren nagusi, baina poliki-poliki eskolako mutilak ere animatu ziren. Talde txikia zen, 14 bat neska eta 10 mutil. Hasieran, bakoitzak ezagutzen zituen dantzekin moldatu ziren, etxean zituzten arropak erabili zituzten, lagunei egurra eskatuz materiala sortzen hasi ziren, baina, berehala sortu ziren behar berriak: materiala, talde izaera... Hau guztia nola? Edozein taldek bezala, baliabideak lortzeko jaialdiak antolatu eta sarrera kobratzen hasi ziren poliki-poliki materiala eta arropak erosi ahal izateko. Izena eta logoa ere behar ziren: Lore Gazteak. Gaur egun izanarekin bat datorren izena dela esan daiteke; landatu zuten hazitik eratorritako Lorea hain zuzen ere.

Taldearen lehen agerpen publikoa 1967ko uztailaren 31n izan zen Kanpazarren. Momentu horretatik aurrera, herriko kultur elkarte nagusiarekin, DANOK Juventud Deportiva, jarri ziren harremanetan herri mailan ere babesa izateko. Bertan onartuta, herriko jendeak hartu zuen konpromisoa taldea aurrera eramateko eta izana bermatzeko. Konpromiso horrek bizirik dirau gaur egun.

50 urteurrenaren kartela

Lore Gazteak

Gaur egun 200 dantzarik parte hartzen dute aktiboki taldean. Herriak duen dantza zaletasuna osasuntsu dago eta horren erakusgarri da partaide kopurua.

Gaur egun 200 dantzarik parte hartzen dute aktiboki taldean. Herriak duen dantza zaletasuna osasuntsu dago eta horren erakusgarri da partaide kopurua. 5 urterekin hasi eta norberak nahi duenera arte dago denontzako espazioa taldean. Dantza ezberdinei dagokienez, partaideek hasierako Gipuzkoako zein Bizkaiko dantzez gain, Araba, Nafarroa zein Iparraldeko dantzak lantzen dituzte. Era berean, taldeko partaideek erabiltzen dituzten jantziei garrantzia handia eman zaie. Lore Gazteak dantza taldeak iturrietara jo du jantziak egiterako orduan, alderdi horren garapena ere nabarmen zainduz.

Taldeak egiten ditu urtero finkoak diren hainbat agerpen: Bailarako Haur zein Dantzari egunak eta San Juan eta Santamas jaiak besteak beste. Horietaz gain, azken urte hauetan Euskal Herritik kanpo parte hartu du hainbat ikuskizunetan: Salamancan, Italian eta Ibizan adibidez.

Taldeak 50. urteurrena ospatzeko jaialdi bat antolatu zuen urriaren 25ean. Bertan, dantza taldetik pasatako 250 dantzarik hartu zuten parte eta hainbat belaunalditan antolatuz alarde eder bat eskaini zuten: belaunaldi bakoitzarentzako esanguratsua eta bereizgarria zen dantza eskainiz. Urteurrenarekin jarraituz, abendurako erakusketa, hitzaldi zein tailer ezberdinak antolatu ditu taldeak.

Ikus daitekeenez, 50 urtetako ibilbideak aukera eman dio taldeari herrian zein herritik kanpo egindako lana erakusteko; hau da, izana eta izena ikustarazteko aukera hain zuzen ere.

25 URTEURRENA

Erromeria

Durangoko

KRISKITIN 1987~2012

- Egilea: Marisa Barrena (Kriskitin dantza taldea) -

1987an sortu zen Kriskitin eta harrezkero folklorearen amarauna ehuntzen darraigu.

Tronperri dantza taldearen 25 urteak betetzen zirenean dantza egiteko aukera izan zuten talde hartan ibilitako aspaldiko dantzariek eta zenbaitzuk oholtzara eta plazara itzuli ziren. Izan ere, dantzari haiek euren barruan zuten dantzarenganako irrika loratu egin zitzaien eta heldutasunean berriro ere dantzari ekitea erabaki zuten. Honela bada Troperriko lehengo dantzariek zein musikariek Txoritxu Alai taldean ibilitakoekin batera Kriskitin sortu zuten.

Lehen ikuskizunak «Berrasi» izena hartu zuen. Beharbada, berrasi ikuskizun haren sortzaile eta partaideek ez zuten uste izango berrasitako bide hark hain ibilbide luzea eta oparoa izango zuenik baina haien ahalegina ez zen alferrekoa izan. Kriskitinen sorrerak ekarpen berezia gehitu zion eskualdeko folkloreari nik uste, ez zen "beste" edo "ohiko" dantza taldea. Partaideak helduak ziren, gehienak aurretik dantzariak izandakoak, eta aurkeztu zutena "Berrasi" hain zuzen, ez zen ohiko ekitaldi bat, bazuen berezitasun eta berritasun interesgarririk: ikuskizuna izatearen ikuspegia, hau da, ikuslea ardatz hartzea. Esandakoaren ondorioz, ikuskizun asmoaz sortu zuten "Berrasi".

Duela mende erdi, bide hau berritzailea izateaz gain, eztabaidatua eta neurri batean gutxietsia izaten zen zenbait esparrutan. Tradizioa mantentzea eta, ondorioz, bere horretan plazaratzea zen jokabide nagusia orduan, eta bide horretatik alboratzen zena "bide zuzenetik" alboratzen zela uste izaten zen.Tradizioa baztertzea leporatzen zitzaien inoiz.

Zalantza barik, tradizioa mantentzea, ikertzea eta lantzea beharrezkoak dira. Gure ondarea ezagutu, zaindu eta plazaratu egin behar dugu, baina horrek ez du esan gura euskal dantzak plazaratzeko orduan, eta ikusleak irabazteko asmotan ikuskizunaren ikuspegia lehenestea eta jendearenganako saio erakargarriak sortzea, okerreko bidea denik. Gure folkloreak bide biak beharrezkoak eta osagarriak dituelakoan gaude.

Ildo horretatik bada, urte hauetan Kriskitinen arlo biak zaintzen eta uztartzen ahalegindu gara. Alde batetik tradizioa ikertu, landu eta zabaltzeko ahaleginean; hor daude "Platillu Soinua" eta "Surrandien Konpartsa"ren berreskurapenak eta "Eztegua antzinako erara" ekimenaren antolaketa. Beste alde batetik euskal dantza tradizionalean oinarritutako sei sorkuntza taularatu ditugu, hurrenez hurren: Berrasi, Muntxaraz, Kriskitinaren Hotsa, Amillanpetik, Aup eta Akelarrea.

Horrez gain, Kriskitinen folklorea, bai gurea eta bai besteena, kultur adierazpen garrantzitsua dela zabaltzearen alde egindako ekimenak burutu ditugu "Durangon Folk" eta "Nazioarteko Folklore Jaialdia" horren lekuko. Bide horretan geure folklorea kanpo herrietara ere eraman dugu gure herriaren izena goien graduan jartzeko ahalegina eginez; Europan zein Ameriketan egin du dantzan Kriskitinek.

Kontuan izan dugu emanaldien kalitateari garrantzia ematea eta hortan saiatu gara, hori bai, dantzari guztiei partaidetza emanez, inor baztertu barik. Apurka apurka, ekinaren puruz, taldeko komunikazio hizkuntza Euskara izatea ere lortu dugu. Gaur egun taldeko ekimenak euskaraz egiten dira, talde barrukoak zein kanpokoak naturaltasun eta normaltasun osoz.

Egia esan, edozein talde edo elkartek lez, une onak eta zoragarriak izan ditugu Kriskitin familia osotzen dugunok, larriak ere bai zenbaitetan, baina eragozpen eta oztopoei aurre egiten ahalegindu gara uneoro, gure folklorea maite dugulako eta jagon beharreko altxortzat dugulako.

Gure zilar urteurrenean "Kriskitinek 25 urte" liburua argitaratu genuen, bertan ibilbidean sortutako ikuskizunak, burututako berreskurapenak, munduan zehar egindako irradak, eskuratutako sariak, gure bizipenak eta anekdotak bildu ditugu. Talde lanean, auzolanean, burutako liburua da, egindako ibilbidea oraingo dantzariek eta etorriko direnek ere ezagutu dezaten.

Kriskitin askoren bultzadak mantendu du bizirik eta osasuntsu 25 urtez, askoren lanak, konpromisoak eta ahaleginak. Lerro hauetatik eskerrak hogeita bost urteotan era batean zein bestean lagundu eta animoa eman diguzuen guztioi; dirua zein adorea eman diguzuenoi, lagun zein adiskideoi, erakunde publiko zein pribatuetako kudeatzaileoi..

Animo eta adore horri eusteko gai izango garelakoan dantzan jarraitzen dugu. Izan zirelako baikara eta garelako izango dira.

Lerro hauetatik eskerrak hogeita bost urteotan era batean zein bestean lagundu eta animoa eman diguzuen guztioi!

Talde gaztea

Durangoko

TRONPERRI DANTZA TALDEA

Tronperri dantza taldea

Tronperri Dantza Taldea 1962. urtean sortu zen. Lehenengoko bost urteetan Euskal Herrian zehar dantza emanaldiak ematen zituzten herrietan antolatzen ziren lehiaketetan eta erakustaldietan parte hartzen.

Tronperri dantza taldea

Lehenengo aro hau, dantzari gehienek dantza egiteari uztea erabaki zutenean amaitu zen, jarduera pertsonal eta profesionaletara dedikatzeko. Hala ere, euretako batzuek euskal dantzarenganako zuten sentimenduagatik, beharrezkoa ikusi zuten euskal dantzak sustatzea eta horri eustea desagertu ez zitezen. Harrezkero beraz, dantzen lan egitarauaren proiektua ume eta gazteei zuzenduta dago gehienbat, umeak baitira etorkizuneko dantzariak. Era honetan iraungo du Durangoko kulturako arlo garrantzitsu honi jarraipena emanez.

Ordutik hona, Tronperriren esfortzu haundiena izan da dantza irakasteko organigrama egonkorra eta iraunkorra izatea Durangoko umeei bideratuta, batez ere. Era berean, nagusien taldea eratu da eta bere helburuak beste batzuk dira; alde batetik Durangaldeko dantzen interpretazioa hobetzea eta, bestetik, Euskal Herriko beste dantza batzuk ikastea.

Tronperri dantza taldea da 3 urtetatik aurrerako ume eta gazteek osatzen duten elkartea. Gaur egun 110 dantzari daude guztira.

Taldeen sailkapena irizpide bi hauetan oinarritzen da: adina, batetik eta ziklo bakoitzean irakatsiko dena, bestetik.

Horretatik aparte elkarteak beste arlo batzuetan ere lan egiten du: txangoak, kanpamenduak eta ikastaroak antolatzen ditu. Guzti hau harremanak lantzeko , urte osoan zehar egindako lana hobetzeko ezinbestekoa da giro on bat sortzea dantzarien artean.

Era berean, bigarren helburu bezala, herrian dauden ekintzetan parte hartzea Durangoko beste elkarte batzuekin batera.

• Euskal dantzak irakastea.

• Durangaldeko eta Euskal Herriko Umeen Euskal Jaietan parte hartzea.

• Dantzaldiak Durangoko auzo eta kaleetako jaietan.

• Dantzaldiak beste elkarte batzuek antolatutako ekintzetan.

• Dantzaldiak edo parte hartzea Udalak antolatzen dituen ekintzetan (Sanfausto jaietako kalejira, Olentzeroren kalejira …).

• Talde nagusiaren dantzaldiak udaleko edo beste alorreko ekintzetan (Zuberoa, Lapurdi, Gipuzkoa, Andorra, eta abar).

• Ikastaro herrikoiak dohainik.

• Euskadiko Festibalaren antolakuntza Durangoko Euskal Astean.

• Umeen Euskal Jaia antolatzea.

• Gabon kanten festibala antolatzea.

• Inauteriko dantzaldia.

Horrez gain, elkarteak beste egitasmo batzuk sakontzen saiatu da. Labur esanda, hauexek dira:

a) Trebatzaileen hobekuntza: Azken urteetako eboluzioa ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu trebatzaileen irakaskuntzarako pedagogia eta ikastaroetarako joateko aukera izatea. Beraien prestakuntza gero ume eta gazteei transmititzeko.

b) Eskaerei erantzuna ematea: Gure irizpideen arabera, dantzaren pedagogia hobetzeko, taldeetan ezin dira egon ume larregi, bakoitzari berak behar denbora eman behar zaiolako dantzak bereganatzeko.

c) Ikerketak: Aspalditik gabiltza murgilduta buru belarri kontu honekin: gure Udalak bandera folklorikorik duen edo ez, beste udal batzuek duten moduan.

Aintzinako dantzariekin harremanetan jarri gara eta Gerediagaren laguntza ere eskatuko dugu, gai honi buruz ikerketa sakonari ekiteko hurrengo hilabeteetan.

d) Emakumeen dantzak kontutan izatea: Gaurko gizartearen egoera ikusita (eta gure elkartearena ere bai, jakina) emakumeen papera goraipatzekoa dela uste dugu. Historikoki, dantzaren mundua gizonezkoa izan dela esan genezake, baina gaur egun, XXI. mendean murgilduta jadanik, emakumeek ere bere tokia eskatzen dute eta eman behar zaiela uste dugu Tronperri dantza taldean behintzat. Horregaitik, "Emakumeak dantzari Bizkaian" hasi gara antolatzen, azken bi urteetan, Txoritxu Alai taldearen laguntzarekin. Nesken dantzak ere kontutan hartzea merezi dute, gizonezkoekin egiten ditugun bezala.

50. URTEURRENA

Tronperriren 50. urteurrena zela eta, ekitaldi nagusia prestatu zen 2012ko ekainaren 26an, San Agustineko antzokian. Bertan, gaur egun elkartea osatzen dituzten 8 taldeek hartu zuten parte: txikietatik nagusienera, aktuazioa zoragarriak eskainiz.

Han ikusi ahal ziren aintzinako zuri-beltzezko argazkiak eta gero etorri ziren kolorezko guztiak ere bai. Ostean oroigarriak banatu ziren elkarteko lehendakari izandakoen artean eta azkenik lunch batekin amaitu zen ekitaldia.

Urteurrenaren ekitaldiak urte osoan zehar ospatu ziren eta hilero baten bat izaten zen. Gonbidatu moduan izan genituen: Durangoko Orfeoia, Tabira Musika Banda, Santutxuko Gaztedi taldearen ekitaldia, Centro Andaluz eta Castilla-Leonekin egindako espektakulua, Bogoriditsi abesbatza, Txoritxu Alai, pInauterietako espektakulua, Herri Maite akordeoiaren ekitaldia, Silboberri Txistu elkartearen ekitaldia, Umeentzako parkea Durangoko jaietan...

Urte osoan urteurrena gogoratzen Tronperriren izena goraipatzeko eta horrekin batera, euskal dantzena, jakina.

Getxoko

ITXAS ARGIA DANTZA TALDEAK BADITU 50 URTE



- Egilea: Getxoko Itxas Argia dantza taldea -

50 urteurrena ospatzeko, ez dago hainbeste urtetan dantza taldea osatu duten guztiei eskerrak ematea baino gauza hoberik

Eta urteurrena ospatzeko, ez dago hainbeste urtetan dantza taldea osatu duten guztiei eskerrak ematea baino gauza hoberik. Hori dela eta, egun Itxas Argia osatzen duten dantzariek zenbait jarduera antolatu dituzte urte osoan zehar. Modu honetan, dantza taldearen mende erdia ospatzen lagundu duten guztiei eskerrak ematen dizkiete.

Dantzari eta taldea gidatu dutenei eskerrak emateko, urte guzti hauetan Getxoko Itxas Argia dantza taldetik pasatutako dantzari guztiei deialdia egin zaie. 1964an Paulino Azkueren gidaritzapean dantza taldea sortu zuten lagun koadrilatik hasita, gaur egun dauden dantzari txikienei ere egin zaie gonbidapena. Hainbat belaunaldi elkartuz, jaialdian hamaika dantza erakutsi eta ondoren denok batera bazkalduz urtetan zehar bizitako momentu ezberdinak gogoratu dituzte.

Taldearen hastapenetan, lehenengo entseguak Getxoko tren geltokiko tabernako behealdean izaten ziren. Hortik Andra Mariko elizpera pasa ziren bertan hainbat urte igaroz. Eliza utzi

Itxas Argia Dantza taldea

eta Itxas Argia kultur elkarteak Malakate auzoan topa zuen lokalean elkartzen hasi ziren. Orain, dantza taldearen entseguetarako prestatutako lokal berria dute eskura.

Taldearen sortzaileek jakinarazi dutenez, 1964ko apirilean hasi ziren lehen entseguekin. 50 urte beranduago Flashmoba egin da ekitaldi erraldoi bat sortzeko asmoz, aipatutako data esanguratsu hori oroituz. Bertan, egungo dantzari zein dantzari ez direnek parte hartu dute.

Dantza taldeak lehendabiziko agerraldi publikoa, urtero antolatzen den Nazioarteko Paella lehiaketan egin zuen, 1965eko uztailaren 25ean. Hortik aurrera berehala inguruko herrietan emanaldiak egiten hasi zen. Momentu honetan, txikien (100 dantzari baino gehiago) eta nagusien (40 dantzari) artean hogei bat dantza emanaldi eta jarduera burutzen dituzte urte osoan zehar, besteak beste: umeen dantzaldia, Andra Mari eguna, Ihauteriak, Olentzero, paella lehiaketa, Sestao, Basurto, Legazpi, Algorta etab.

1993. urtetik, Andra Mari auzoan, San Isidro jaietan dantza taldeak Getxoko Nazioarteko Herrien Jaialdia antolatzen du urtero. Kanpoko dantza talde bat gonbidatu eta eurekin batera emanaldia osatzen dute. Aurten, emanaldira Euskal Herriko probintzia bakoitzetik dantza talde bat gonbidatu da, "Euskal Herria dantzan" izena hartuz. Erakustaldian ikusgarriak izan dira probintzia horietako bai euren dantza tradizionalak baita jantziak ere.

Itxas Argia dantza taldeak, euskal kultura eta folklorea atzerrian ere erakutsi du hainbat herrialdetara bidai eginez, besteak beste: Platja d´Aro, Bartzelona, Asturias, Errioxa, Grezia, Portugal, Lituania, Italia, Inglaterra, Belgika, Holanda, Bretainia, Uruguay, Argentina, Menorca eta Landak.

Dantzaldi guzti hauetan, herrian zein atzerrian erabilitako jantziak josi dituzten jostunak ere omendu nahi izan dira urteurreneko jardueren artean. Horretarako, "Josi ta josi ehun kolore" jantzi erakusketa egin da, bertan jostunek urte guzti hauetan zehar jositako jantzi batzuk erakutsi direlarik. Musikariek ere haien txokoa izan dute, dantzatzeko orduan duten garrantzia erakusteko. Horrela, erakusketan urteetan zehar erabilitako instrumentuak ikusi ahal izan dira.

Mende erdi honetan, Itxas Argia Euskal Dantzarien Biltzarreko partaide izateagatik, dantzariek aukera paregabea izan dute makina bat dantza ezagutzeko eta ikasteko. Horrez gain, 1977. urtetik Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen duen Dantzari Egunean parte hartu du. Urte guzti horietan, parte hartzeaz gain, antolaketan ere aritu da: Bizkaiko Dantzari Eguna (1982 eta 2004) eta Euskal Herriko Dantzari Eguna (1993).

50. urteurrena, dantza taldetik pasatako guztiei eskerrak emanez ospatu ondoren, 51.ari gogotsu ekingo dio Getxoko Itxas Argia Dantza Taldeak bere urteroko ekitaldi eta jarduerak eginez, eta ahal izanez gero esperientzia berriak bilatzen. Beste hainbat urtez Euskal Herriko dantzak eta kultura mundu osoan zehar erakusten jarraituko du.

> *Itxas Argia dantza taldeak, euskal kultura eta folklorea atzerrian ere erakutsi du hainbat herrialdetara bidai eginez*

Irurtzungo

ORRITZ DANTZA TALDEA,

DANTZA TALDE BAT BAINO GEHIAGO

- Egilea: Orritz Dantza Taldea. Argazkia: Nerea Mazkiaran -

Aurten Orritz Dantza Taldeak 25 urte betetzen ditu modu jarrai batean lanean dabilenetik. Hala ere beraien ekarpena egin zuten aitzindariak ere egon ziren:

60KO HAMARKADA

60ko hamarkadan Irurtzunen dantza talde bat sortzeko asmoarekin pertsona batzuk elkartzen eta entsaioak antolatzen hasi ziren.

Urte gogorrak ziren gizarte osoarentzat eta garai hartako momentu politiko eta soziologikoarengatik ez zeuden ongi ikusiak euskararekin eta euskal folklorearekin lotutako aktibitateak eta modu berean, dantza talde hartan parte hartzen zuten pertsonak.

Ez zuten lortu pertsona askorik elkartzea eta logistikako arazoak medio, bertan behera gelditu zen hilabete batzuen buruan.

GRUPO DE DANZAS DE IRURTZUN

Garai hartan Irurtzunen zegoen Lagun Berriak elkarteko beste aktibitate bat bezala hasi zen dantza talde hau, 1973. urte inguruan.

Lehenengo emanaldia 1974ko ekainaren 9an izan zen Irurtzungo Trinitatetako Jaietan.

Berezitasunetako bat, pertsona guztiak Irurtzun bertakoak zirela da, guztiak 17-19 urte bitartekoak. Talde hau 4-5 urte egon zen martxan.

GRUPO DE DANZAS DEL VALLE DE ARAKIL ETA ORRITZ

Aurreko taldearen geldialdia eta gero, 1978. urtean hasi zen Grupo de Danzas del Valle de Arakil. Bertan, Irurtzungo herritarrez gain, inguruko herrietako jendea hurbiltzen hasi zen: Arbizu, Irañeta, Etxarri-Larraun, Ihabar…

Urte batzuk izen honekin ibili ondoren, aldatzea erabaki zuten eta hurrengo entsaiora izenen proposamenak eramatea erabaki zuten. Horrela ORRITZ izena aukeratu zen hainbat proposamenen artean. Garai hartako taldeari zor diogu baita ere Orritzeko ezkutu eta zigilua.

Talde hau 80ko hamarkadako erdialderarte egon zen martxan eta azkenean jende faltagatik (mutil gehienak soldaduska egitera joaten ziren, taldeko partaideak gutxituz) utzi egin zen.

ORRITZ DANTZA TALDEA

1989ko urriko egun batean, aurreko taldeko 3 pertsonen artean bilera bat konbokatu zuten Irurtzungo eta inguruko herrietako gazteei zuzendua, dantza talde bat sortzeko asmoarekin. Planteamendu hau egin ondoren hasi zen taldea.

Orritz Dantza taldea eta ezkutua

Talde guztiek jasaten dituzten gora beherekin, etenik gabe jarraitu du gaur egun arte.

GAUR EGUNEAN

Kurtsoan zehar, astero 15 eta 32 urte bitarteko Irurtzun eta inguruko herrietako 30 bat pertsona elkartzen gara entsaiatzeko.

Emanaldi nagusienak udan izaten dira inguruko herrietako festetan: Irurtzun, Etxaleku, Egiarreta, Etxeberri, Lakuntza, etabar. Udaberriko jaialdi bat ere antolatzen dugu urtero aldatzen diren beste bi talde gonbidaturekin eta uda partean atzerrira edo beste probintzia batera joaten saiatzen gara dantza emanaldi bat emateko eta egun batzuk etxetik kanpo pasatzeko.

Paraleloki, Dantza Txiki Talde bat ere badaukagu 5-14 urte bitarteko gaztetxoekin eta helduentzako dantza ikastaroak ere antolatzen ditugu.

Era berean duela 15 urte proposamen batetik, joaldun eta pertsonai mitologikoen taldea sortu zen.

ORRITZ: IZENA ETA EZKUTUA

Orritz izena Sakanako Dorrau eta Unanu arteko zonalde bateko toponimoa da.

Taldeko ezkutuak bitxikeria bat dauka ezkutaturik: aldez alde banatzen duen kateak, 14 kate-maila dauzka. Ezkutu honen eraztunen kopurua, momentu hartan Arakil osatzen zuten herrien kopurua da.

DANTZA TALDE BAT BAINO GEHIAGO

Irurtzun bezalako 2.300 bat biztanleko herri txiki batentzat Orritz bezalako dantza talde bat egoteak suposatzen duena zaila da neurtzen. Gazteen parte hartzea bultzatzen duena, ekitaldi eta emanaldiak antolatzen dituena, herriko beste talde eta elkarteen arteko elkar laguntza bultzatzen duena, gazteek ardurak hartzea ahalbidetzen duena, euskararen erabilera bultzatzen duena… Azken finean herria bizirik mantentzen laguntzen duena!!

URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK

2014. urtean zehar hainbat ekitaldi antolatu ditugu Orritzen urteurrena ospatzeko helburuarekin. Nagusienetariko bat ekainaren 14an antolatu genuen Nafarroako Dantzari Eguna izan zen. Bertan Nafarroako txoko guztietako 700 bat dantzari elkartzea lortu genuen eta primerako eguna pasa genuen!

Etxekoek urteurrenaz gozatzeko, Orritzen eta aurrekariak izan ziren dantza taldeen emanaldi bateratua antolatu genuen azaroaren 22an. Kalejira eta ekitaldi nagusia eta gero, taldean egondako 150 partaideek primerako afaria egin genuen, pasatako abenturak eta txutxumutxu zaharrak berriz ere birgogoratuz.

Pasaiako Alkartasuna Euskal Dantza Taldea

Pasaiako

ALKARTASUNA EUSKAL DANTZA TALDEA

ZUEK HASITAKO HURA, EZ DADIN INOIZ BUKATU!

- Egilea: Pasaiako Alkartasuna Euskal Dantza Taldea -

Erraz esaten den zenbakia da berrogeita hamar. Bost eta zero. Bi zifra huts. Baina urte hitza gehitzen badiogu atzetik, mende erdi betetzeaz hitz egiten badugu, ohartzen gara daukan garrantziaz, daukan merituaz eta transmititzen duen indarraz.

1964an Alkartasuna Euskal Dantza Taldea sortu zenetik asko eta asko izan gara bertan gure aletxoa jarri nahi izan dugunok. Lekukoa eskutik eskura pasa dugu, gelditu gabe, askatu gabe. Denok izan dugu dantzatzea gustuko, gorputza goitik behera eta ezker eskuin erritmoan mugitzea. Baina ez gara dantzari hutsak, euskal kulturarekin eta euskal tradizioarekin konpremitutako taldea garelako.

50 urte egin ditugu euskal dantzak ikasi, irakatsi eta erakusten. 50 urte kultura maitatzen, sustatzen eta hauspotzen. 50 urte herriari bizia ematen, herria alaitzen eta herriarekin daukagun altxorra konpartitzen. 50 urte musika jotzen, doinuak ikasten eta hauekin dantzatzen.

Biderik luzeena ere etxeko ataritik hasten da. Eta horrela sortu zen taldea, gutxi

ALKARTASUNA
EUSKAL DANTZA TALDEA
50. URTEURRENA

Pasaiako Alkartasuna Euskal Dantza Taldea

Biderik luzeena ere etxeko ataritik hasten da. Eta horrela sortu zen taldea, gutxi batzuen ilusio eta konpromisoarekin.

batzuen ilusio eta konpromisoarekin. Baina asmatu dugu bidean aurrera egiten. Eta oraindik ere bide luzea dugu aurretik.

Jarraitu nahi dugu orain arte bezala Pasai Antxo ekintzaz betetzen. Nork esango zuen 50 urte dantzan egingo genituenik, Sagardo Jaia antolatzen 21 urte igaroko genituenik, hamabostaldi kulturala prestatzen urte luzeak pasako genituenik, Olentzero eta Maridomingi ilusioz mozorrotuko genituenik, udako, zein neguko solstizioak herriko zita garrantzitsu bilakatuko genituenik eta beste hamarnaka ekintza burutuko genituenik.

Saiatu gara esku artean daukagun altxorra herrian ez ezik kanpora ere eramaten. Frantzia, Israel, Eskozia, Italia, Espainia, Alemania, Portugal, Galizia, Polonia, Eslovenia, Txekiar errepublika, Japonia, Sardiniar errepublika. Euskal Herria zer den erakutsi diegu dantzan eta beste hainbat salto artean ezagutu ditugu haiek. Eta etxean sentitu gara hauetan denetan, erantzun politak jaso ditugu, txaloak, harridura aurpegiak... denetik. Eta gu irrifar handi batekin itzuli izan gara Euskal Herrira.

Bizitako guztia oroimenean geratuko zaigu. Baina urte luze hauetan egindako lana, funtzionatzeko izan dugun modua, edukitako ilusioa... azken batean gure izana betiko gordea geratu dadin, Koldo Izagirrek idatzitako liburu bat aterako dugu urte bukaeran.

Eskerrak ematea soilik geratzen zaigu. Hau dena martxan jarri zenutenoi, bihotzez mila esker. Eskerrik asko modu batera edo bestera zuen ilusioa taldean jarri duzuenoi, taldeko kide izan zaretenoi. Beste urte mordoz bidea egiten jarraitzeko prest gaude, zuek hasitako hura, ez dadin inoiz bukatu!

Sestaoko

SALLEKO EUSKAL DANTZA ETA TXISTU TALDEA

50 URTE DANTZAN

- Autoría: Salleko Euskal dantza eta Txistu taldea -

Años previos de compás de espera ilusionada y meses de reuniones preparatorias el año anterior, marcaron para Salleko la llegada del año 2012 y con él, el 50 aniversario del grupo. Cuando llega ese año de celebración, nos habíamos marcado un triple objetivo y compromiso: rememorar los actos que se realizaron en el 25 aniversario, que estos actos redundaran en beneficio de la colectividad que nos ha apoyado todos estos años, y por supuesto, hacer de ese año de conmemoración un motivo de reencuentro con antiguos txistularis, dantzaris, socios y familias que habían formado parte del grupo y conseguido de ese modo, que nos hayamos mantenido todos estos años en pie y con la misma ilusión.

Nuestras expectativas estaban puestas por tanto, en conseguir la participación del mayor número de dantzaris, txistularis y socios (antiguos y actuales), y en que participaran de forma puntual en las actividades elegidas, pero también que algunas de ellas pudieran seguir manteniéndose en el futuro. Y con este propósito y por supuesto con el de disfrutar, celebrar y compartir elaboramos y llevamos a cabo este calendario.

• El 5 de Mayo inauguramos los actos con el **1º FESTIVAL "50 urte Dantzan"**. El hilo conductor elegido para el festival fue contar una sencilla y a la vez vital historia: cómo evoluciona un@ dantzari desde que entra de txiki a un grupo de dantza. Y entregados a ese fin, en lenguaje de danza y música, dantzaris de todos los taldes en activo junto a los txistularis, hicieron un recorrido con repertorio de todos los herrialdes, para contar esta "historia de un dantzari", en un festival en el que nos acompañó como invitada la Coral Amatza.

• Del 8 al 22 de Mayo, en la Escuela de Música estuvo la **EXPOSICION de TRAJES e INSTRUMENTOS "Garaian garaikoa",** y en ella una muestra de 19 de los muchos trajes

que ha ido confeccionando el grupo a lo largo de estos años, así como de instrumentos propios del grupo, acompañada de documentación de los bailes e historia de los mismos, y de los instrumentos, y fotografías antiguas del grupo. Como complementos de la exposición, una charla/taller de Patxi Laborda, "Dantzak gureak ote?", y un Concierto didáctico realizado por los músicos del grupo Salleko.

• Los domingos 27 de Mayo y 3 y 10 de Junio, se celebraron las **JORNADAS GASTRONOMICAS** en los patios del colegio la Salle, cada domingo un plato: marmitako, bacalao al pil-pil y plato libre. En estas jornadas tuvimos la oportunidad de estrenar el recuerdo de aniversario que se dio a los ganadores de cada una de estas jornadas junto con el premio en metálico.

• El 24 de junio llegó la **GIGANTADA**. 9 parejas de gigantes con sus respectivas Konparsas, venidos de Barakaldo, Santurtzi, Getxo y Zornotza, que junto a Sestaoko Erraldoiak se concentraron en el patio del colegio para salir al mediodía desde Kueto por toda la Gran Vía hasta la Plaza del Kasko, y después por la popular calle de La Pela, haciendo varias paradas para bailar.

• El día 1 de Julio se recuperó el **CONCIERTO DE TXISTULARIS**, una de las más históricas actividades del grupo. Concierto en el que se estrenó un formato nuevo en Sestao, que se integra un instrumento tradicional como es el txistu con otros de viento, metal (trompeta, bajo, trombón, tuba), percusión combinada, txalaparta, gaita navarra, alboka, cantantes, y en el que participaron también los dantzaris del grupo.

• En Sestao la Bajada de Simondrogas forma parte intrínseca de su cultura y de su historia, y para Salleko era importante hacer un hueco a esta actividad, por lo menos ese año de aniversario. Así pues, el 7 de Julio no pudimos bajar a Simondrogas pero sí lo hicimos, con una pancarta de estreno, por la Iberia hasta la Pza. de los Tres Concejos en la **BAJADA POPULAR**, junto a los taldes de dantza, y peñas de fiestas que aceptaron nuestra invitación, recuperando un poco el espíritu de la bajada tradicional. Terminamos la tarde con una Romería amenizada con los músicos del grupo.

• Pasado el verano, el 22 de Setiembre la **COMIDA POPULAR**: un día completo festivo y de encuentro de todos los socios, dantzaris y txistularis. Por la tarde el otro C**ONCIERTO DE TXISTULARIS** de nuestro calendario de actos, esta vez también con los antiguos txistularis que hacía años que habían dejado el txistu en la funda. Junto con los actuales, pudieron disfrutar y ofrecernos un concierto con un repertorio bien trabajado, gracias a los ensayos que habían empezado meses atrás.

• El 29 de Setiembre, y dentro de la Euskal Jaia, se estrenó una nueva actividad con la voluntad de repetirla a**nualmente en el futuro: el** TRIKITIXA EGUNA. Escuelas de trikitixa de diferentes herrialdes estuvieron toda la mañana por los diferentes barrios del pueblo, después comimos sukalki con ellos en la Pza. del Kasko y allí mismo por la tarde hicieron una Exhibición.

• En Octubre, el día 13, llegó otro de los actos más esperados por todos: el **2º FESTIVAL "50 urte Dantzan"**, en el que participaron también antiguos dantzaris y txistularis. La elección del repertorio de este festival, tuvo que ver con las danzas que habían juntado a diferentes generaciones de dantzaris del Salleko. De este modo, con Dantzari Dantza, Otxagabia, Ibarzabal, Azpeitia, Gorulari y Larrain Dantza entre otras, en el frontón se contó la historia en danza del grupo y en el escenario se unieron el afán de recuperar la técnica y de dar lo mejor de sí, con la emoción del reencuentro. En este festival nos acompaño el Orfeón de Sestao y tuvimos el gran placer de bailar con ellos el montaje de "Ituringo Arotza".

• Y por fin, el sábado 10 de Noviembre culminó la celebración del aniversario con el **ALARDE FIN DE ACTOS** en el frontón. Porque decidimos que un sencillo pero histórico alarde en el que pudieran participar todos los grupos, desde los más pequeños hasta los más mayores, grupo de romerías incluido, tenía que ser la manera de despedirnos: "al compás de todas las

danzas que siguen estando vivas en la mayoría de los alardes que vemos por toda Euskal herria, y que todo dantzari o músico ha interpretado o bailado alguna vez en su vida".

Además de estos actos relacionados únicamente con el aniversario, a mediados de Junio celebramos la actividad que más cuidamos en el grupo, la XXVIII UMEEN EUSKAL JAIA con los grupos que históricamente llevan acercándose a Sestao con sus txikis a pasar el día. Y a finales de mes los 3 festivales de la XVI MUESTRA DE FOLKLORE DE SESTAO en la que aprovechando los actos de aniversario, se estrenó fondo de escenario e imagen modernizada de la misma, y los grupos invitados participaron junto a Salleko en una experiencia nueva, un taller fusión de jotas que se realizó durante el pasacalles de la mañana del sábado.

No podemos ni debemos olvidar a las asociaciones que se acordaron de nosotros para homenajearnos en 2012 y que hicieron que nos sintiéramos más arropados: pregoneros de las Fiestas de San Pedro, la Asoc. Amigas de la Costura que nos invitó a abrir su desfile de Santa Rosa, homenaje de Mendieta Kultur Elkartea en el Sagardo Eguna, homenaje de los veteranos del Club de Remo de Sestao, invitación del Teatro Barakaldo a participar en un festival junto a Amaia Dantza Taldea e invitación del Orfeón de Sestao a bailar el agurra en su Concierto de Navidad entre otros.

A todos ell@s, a todas las entidades públicas y privadas, y a todas las personas de dentro y fuera del grupo que nos ayudaron ese año, queremos aprovechar de nuevo esta ocasión para dar las gracias, ya que sin su ayuda no hubiera sido posible.

DESPUÉS DEL ANIVERSARIO

Alarde fin aniversario

En estos dos años transcurridos desde el fin del aniversario, Salleko se ha recuperado de ese agotador y emocionante año de celebraciones, y ha vuelto al trabajo diario de la vida habitual del grupo. Pero, quizás por el impulso generado en 2012, han sido años de intensa tarea que han generado frutos importantes.

Los grupos de txikis han aprendido los nuevos bailes que se han incorporado a los alardes de zona y el repertorio del grupo de mayores también se ha visto incrementado los últimos 3 a 4 años por nuevos bailes o recuperación y puesta a punto de otros. Así, Neskeen Soka Dantza, Paloteados de Cortes, Soinu Zaharrak, Bateleras, Carnaval de Lapurdi, Aros de Lanestosa, Xemeingo Ezpata Dantza e Ingurutxo de Iribas entre otros, junto a varios montajes entre los que destacan "Ituringo Arotza", "Hartzaren ehiza", Montaje de Dantzari Dantza y Montaje de Romería, estrenado este año, forman parte del ampliado repertorio de dantza y lógicamente música, de Salleko. Por otro lado los talleres para adultos se han afianzado en el grupo y cada vez son más los que se acercan a aprender danzas de romería para poder bailar luego en las plazas.

La política de intercambios para organizar la Muestra de Folklore de Sestao, ha dado grandes resultados primero de calidad en los festivales por la elección directa de los grupos, pero también por las salidas del grupo al exterior que es muy importante para llevar nuestro folklore fuera, pero también para fortalecer al grupo. En los últimos tres

años Salleko ha llevado el nombre de Sestao y el folklore de Euskal Herria a: Betanzos, Langreo, Palencia, A Estrada, Arriondas, Logroño, Torremolinos y Tenerife, estos dos últimos estarán en Sestao el próximo año, si todo va bien también algún grupo internacional. Por otro lado, este año hemos definido y centrado la imagen de la Muestra para publicidad y relaciones con el exterior, y esperamos que se consolide como seña de identidad del folklore en Sestao y de la vinculación de Salleko en la organización de la misma

La Umeen Euskal Jaia de Sestao organizada por el grupo, celebró este año su 30 edición, una cifra redonda que nos llena de orgullo, ya que en Salleko es la actividad que se mima por encima de todas y que cierra las salidas de txikis fuera, porque los taldes invitados son de intercambio. Casi 500 dantzaris, venidos de Oñati, Lasarte, Iruñea, Durango, Ermua, Getxo, Las Carreras, Santurtzi, Errepelega y por supuesto Sestao. Este año, hemos hecho realidad una idea que llevaba fraguándose años: invitamos a los taldes de zona a quedarse a comer en el comedor de la ikastola. El objetivo de Salleko es este día, no solo coman en Sestao los taldes que vienen de más lejos, sino que también los dantzaris de nuestra zona, vivan la Umeen como un día completo, y lo hagan en el mismo espacio donde se recibe a los grupos y se hace el alarde, el eje aglutinador de la Umeen: el patio de la Salle que es la casa del grupo. La iniciativa creemos que ha cumplido su primer año con creces y comimos y compartimos comida en el jantoki los aitas, amas, preparadores y dantzaris de Ikusgarri, Zugaitza, Itxas Argia y Arriskugarri. Esperamos que en los años sucesivos, sean todos los taldes de zona los que se animen a esta comida de hermandad.

De las actividades que se retomaron o nacieron en el aniversario, estamos especialmente satisfechos de haber llegado este año al III Concierto de Txistularis, que se va consolidando en el programa de fiestas de San Pedro, en el mismo formato en que nació. Hay que añadir a esto que hay un grupo de antiguos txistularis que decidieron pasado el aniversario, iniciar un compromiso de ensayos quincenales y que se van involucrando cada día mas en las actividades del grupo. Por otro lado también el Trikitixa Eguna, que ha vuelto a organizar Salleko dentro de las actividades de la Euskal Jaia ha cumplido los 3 años de edición y espera ir sumando cada vez más escuelas de Trikitixa a su celebración.

Pero además, este año 2014 ha sido un año de nuevos y especiales proyectos: el Bolanta Eguna y el Espectáculo de la Noche de San Juan, con un montaje muy cuidado, que hemos dado forma y estrenado este año, están ya en el calendario del próximo y que esperamos poder mantener en los futuros.

No podemos decir pues para acabar, otra cosa diferente a que el mayor deseo de Salleko Dantza eta Txistu Taldea 50 y tantos años después de su nacimiento, es el mismo que tenía en sus inicios: poder seguir trabajando con el objetivo de enseñar y transmitir nuestro folklore, y poder también seguir participando en promocionar y divulgar nuestra cultura en Sestao y fuera de nuestro pueblo. Y con ello, transmitir el orgullo por nuestra música y nuestras danzas a cualquiera, desde el más txiki hasta la persona con más edad, que se anime a acercarse a la sede del grupo.

Bolanta eguna 2014

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARREKO LEHENDAKARIA

Joseba Altube Basterretxea

- Elkarrizketatzailea eta argazkiak: Cristina Martinez -

"Euskal Dantzarien Biltzarra Euskal Herriko sare kulturalik zabalena da"

Bizitza erdia baino gehiago darama Joseba Altubek folklorea eta dantza tradizionalaren munduan. 1977. urtetik Barakaldoko Laguntasuna Dantza Taldeko dantzaria da eta baita taldearen lehendakaria ere 1991. urtetik. Aurreskulari eta Euskal Herriko dantza tradizionalaren irakasle bezala aritu da eta hainbat urte darama folklorearen inguruko ekintzak eta ekitaldiak antolatzen. Gainera, bada urtebete Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakaria dela; elkarteak 50 urte beteko ditu aurten (1965-2015). Pasa den azaroaren 19an berarekin elkartu ginen eta bere jarduera profesionalari buruz hitz egiteko aukera izan genuen. Joseba Altubek adeitasun handiz hartu gintuen.

Urte asko daramatzazu Euskal Herriko folklore eta dantza tradizionalaren munduan, dantzari, aurreskulari, irakasle zein Barakaldoko Laguntasuna Dantza Taldeko lehendakari bezala. Gainera, duela urte bat gutxi gorabehera Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakaria zara, nondik datorkizu euskal kulturarekiko zaletasuna edo maitasuna?

Nire harremana euskal kulturarekin euskararekin hasi zen, hau da, ni dantzaren munduan sartu baino lehen nire aita Barakaldoko euskararen munduan sartuta zegoen. Bera izan zen Barakaldoko haurrentzako lehen ikastolaren eta baita Laguntasuna elkartearen sortzaileetariko bat. Hortik datorkit nire harremana euskal kulturarekin. Orokorrean, gurasoen etxean euskal kulturarekin harreman handia geneukan. Adibidez, maitasun handiz gogoratzen ditut gure aitak zituen binilozko euskal diskak edo gure amaren familiatik heldu zitzaigun "Xabiertxo" liburua, gerra baino lehen erabiltzen zena ikastoletan euskara ikasteko. Nire familian beti euskal kultu-

raren aldeko giroa egon da. Horregatik, batez ere familiaren aldetik datorkit euskal folklore eta dantzarekiko maitasuna.

Beraz, oso garrantzitsua da zuretzat Euskal Herriko folklorea eta dantza tradizionalaren mundua?

Bai, nire bizitzaren funtsezko parte bat bihurtu da, helburu pertsonal bat bezala hartu dut euskal kultura eta batez ere, euskal folklorea jorratzea.

Noiz hasi zinen dantzan?

Hamabost urterekin hasi nintzen dantzan eta oraindik gaur egun, Laguntasuna Dantza Taldean behar denean ere dantzari moduan aritzen naiz baina azken aldi honetan lehen baino gutxiago. Denetarik dantzatu dut, Zuberoako dantzak, Gipuzkoakoak eta abar. Aurreskulari moduan ere hamar urtez aritu nintzen baina egia esanda, handiagoa da nire dantzarekiko zaletasuna gaitasuna baino. Gainera, hamar urte baino gehiago jardun naiz dantza maisu moduan.

Irakasle onak izan dituzu?

Betidanik dantzaren munduan sumatu dudana irakasleen prestakuntza eza izan da. Nik izan nituen lehen irakasleek prestakuntza eskasa zuten, autodidaktak ziren. Hau da, nahiz eta dantzari onak izan eta gaitasun handia eduki, euren prestakuntza teknikoa ez zen oso ona, horregatik, nire ardura nagusietariko bat dantza irakasleen eta monitoreen prestakuntza da. Dantza tradizionalaren munduan landu behar dugun gai bat dela uste dut.

Hala ere, irakasle onak izan diren zenbait pertsona gogoratzen ditut, batez ere, Casimiro Larrazabal, gerra baino lehenago dantzaria izan zena eta Laguntasuna Dantza Taldean bertan ere maisua izan zena. Horren ostean Victor Franco, ni baino lehenago dantzaria izan zena eta nire belaunaldiaren dantzarien artean erreferente izan zena eta azkenik Fran Muñoz, azken 25 urte hauetan arrakasta handiz Laguntasunaren zuzendari tekniko-artistikoa dena.

Dantza irakasle bezala, zein da zure irakaskuntza eredua?

Biltzarraren barruan 250 talde federatu daude, non 1000 monitore baino gehiagok diharduten, haietako gehienak oso gazteak. Gazte hauen formakuntza hein haundi batean EDBren erantzunkizuna da. Prestatu behar ditugu oinarri sendoak jarriz, haien ezagutza koreografika zein folklorikoa landuz, eta baita haien alde hezitzailea ere. Horregatik, behetik gora egin behar dugu lan gai honi behar den garrantzia emanez.

Uste duzu egokia izango litzatekeela orain arte egon diren dantzak aldatzea edo berriak sortzea?

Dantzak historian zehar eta urteetan zehar aldatzen doaz, berez aldatzen dira eta hori ez da gauza txarra, folklore eta dantzaren arloan oso gauza arrunta da. Euskal Dantzarien Biltzarrean dantza tradizionala landu eta zaindu behar dugu, horregatik formazioa oso garrantzitsua da. Dantza bat aldatu, jorratu, sortu edo birsortu nahi baduzu, jakintasunetik eta esperientziatik izan behar da, ezin dira dantzak sortu ezagutzarik gabe, hau da, nondik datozen eta zer irudikatzen duten jakin barik.

Euskal Dantzarien Biltzarraren lana osagarria da beste batzuek egiten dutenarekin, baina batez ere, bere lana dantza tradizionalaren barruan egon behar da.

Nola ikusten duzu dantza tradizionalaren etorkizuna?

Dantza tradizionalaren etorkizuna inoiz baino osasuntsuagoa da, momentu honetan inoiz baino dantzari eta dantzazale gehiago dago Euskal Herrian nahiz eta eredua aldatu den. 80. hamarkadako eredua militantziarena zen eta gaur egungoa esan dezakegu gozamenarena dela, nortasuna adieraziz. Lehen jende askok egiten zuen dantza tradizionala bere euskalduntasuna eta abertzaletasuna adierazteko, batez ere, Hegoaldean eta orain jendeak dantzaz gozatzeko egiten du dantza bide batez bere euskal izaera adieraziz.

Gaur egungo gazteriak ba al du folklorea eta dantza tradizionalarekiko interesik?

Igarri egiten da gazteriak eskaintza oso zabala daukala bere aisialdian. Talde askotan nabari egiten da gazteen falta, orokorrean dantza taldeetan ez dago nahiko genukeen adina gazte. Egia da Euskal Herrian milaka gazte daudela dantza taldeetan baina guri gustatuko litzaiguke gehiago egotea. Baditugu ume asko eta jende nagusi asko ere bai, baina gure erronka gazteak gureganatzea da.

Nola sustatu daiteke interes hori?

Batez ere motibazioaren bidez sustatu daiteke. Gure dantza taldeen arduradunak formatu behar ditugu eta haiek jakin behar dute gazteak nola motibatu, hori ere lantzen ari gara gure formazioan. Gazteek dantza tradizionaletik kanpo motibazio asko dituzte eta horri aurre egin behar diogu. Gazteen konpromisoa bilatu behar da dantza taldeak aurrera ateratzeko, orain dauden arduradunak joaten direnean beste batzuk etorri beharko dira horien ardura hartzera.

Zergatik erabaki zenuen Euskal Dantzarien Biltzarrerako hautagaitza aurkeztea?

Proiektu honetan sinesten dudalako eta guztion lankidetza eta batasuna bultzatzeko. Gogo handiz, lan egiteko sartu nintzen. Adibidez, proiektu honekin aurrera eramaten ari naiz buruan neukan zenbait ideia, (formakuntza, ikerketak…) beste elkarte batetik ezin direnak aurrera eraman. Hau nazio elkarte bat da, Euskal Herri mailan proiektu hunkigarria da. Beti esaten dut EDB Euskal Herriko sare kulturalik zabalena dela, sare hori egituratu eta itxuratu nahi dut eta hori da orain egiten ari garena.

Proiektu berri batekin hasten zarenean beldurrak edo zalantzak sortu ahal dira, zelako zalantzak izan zenituen?

Asmo handiko proiektu bat denez eta amaiera ez duenez, nire zalantzarik handiena izan zen proiektua aurrera eramateko indarrak izango nituen eta baita ere bidean laguntzarik izango nuen. Gaur egun esan dezaket indarrak ditudala eta laguntza ere bai, gainera, gero eta laguntza gehiago daukat, bai EDB barrutik datorrena eta baita EDBtik kanpo datorrena ere. Jende asko niregana etorri da bere lankidetzarako eskaintza egiteko. Orain arte egin dugunarekin oso pozik nago.

Ardura hartu zenuenean nolako egoeran zegoen Euskal Dantzarien Biltzarra?

Beti esaten dut ez dudala atzera begiratu nahi, aurrera begiratu nahi dut, hori baita nire proiektuaren bereizgarria. Lehengo egoera hobegarria izan zitekeen eta orain guztion lanari esker hobetzen ari da. Dena den esan behar da EDB herri honen isla bat dela, txikia eta konplexua: 5 ordezkaritza, 250 talde, 1000 monitore, 20.000 dantzari eta dantzazale baino gehiago… Horiek guztiak dira proiektu honen indarra.

Urtebete daramazu Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakari lanetan, nolakoa izan da lehenengo urte hau?

2013. urteko maiatzean hautatua izan nintzen eta azaroan izendatua, beraz, maiatzetik aurrera hasi nintzen EDBren Batzordearen bileretara joaten eta nola funtzionatzen zuen ikusten. Pasa den azarotik bi pausu eman dira, alde batetik, erritmo apur bat biziagoa dugu eta beste alde batetik, kohesioa sakontzen saiatu naiz. Bileretan eta ekintzetan orain lehen baino kohesionatuagoak gaudela uste dut. EDBren funtzionamendua ere normalizatu egin da, batzordekideok hilean behin biltzen gara argi dauden helburu zehatz batzuk jorratzeko (Dantzari Eguna, formazioa, aldizkaria, ikerketa beka, bideo lehiaketa, webgunea…).

Zaila da aldi berean EDBren lehendakaritza eramatea eta zure bizitzako beste alderdi batzuk?

Badauka bere zailtasuna, nire bizitzak hainbat atal ditu, lehenengoa familia da, noski, bigarrena nire lana eta hirugarrena kultura tradizionalaren arloa. Bati ematen diozun denbora eta esfortzua beste bati kendu behar diozu.

Erakunde publikoek laguntzak ematen dizkizuete?

Euskal Dantzarien Biltzarrak ez dauka erlazio zuzenik ez Aldundiekin ezta Udalekin ere, guk harremana Eusko Jaurlaritzarekin daukagu bai gure eguneroko ekintzei eta urteko programari esker baita proiektu zehatz batzuei esker. Esate baterako, orain Eusko Jaurlaritzaren dantza tradizionalaren artxiboaren proiektuan sartuta gaude ekarpenak egiten, bileretara joaten eta beraiekin batera lan egiten eta baita beste elkarte batzuekin ere. Guk elkarte moduan eta diruaren aldetik Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dugu laguntza. Orain, zenbait laguntza pribatu ere lantzen hasi gara.

Zelako aldaketak jasan ditu Euskal Dantzarien Biltzarrak sortu zenetik gaur egunera?

Lan lerroak ia-ia berdinak dira. Erritmoa, baliabideak eta lan egiteko era ezberdinak dira.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen helburuak?

Lehenengo fase batean helburu nagusia barne kohesioa indartzea da eta bigarrena gure formatzaileen prestakuntza sustatzea, hau da, metodologia bat irakatsi nahi diegu formatzaileei bere lana errazteko, EDBren eginbeharra formazioa da. Bigarren fasean, EDBri berez dagokion dantza tradizionalaren topagune bihurtzea da nire helburua.

Barakaldo 1900 eta 1950 bitartean kultura tradizionalen adierazpenen inguruko azterketa etnografikoa egiten ari zara, horri buruz zerbait kontatu ahal diguzu?

Gauza oso interesgarriak jaso ditugu Laguntasuna Elkartetik egiten ari garen ikerketan eta horietako batzuk kalera berriro atera ditugu. Pasa den urtean, ia 80 urtez galduta egon den Santa Luziako erromeria berreskuratu genuen eta aurten (2014an), gerra baino lehen Barakaldon dantzatzen zen elizateko aurreskua berreskuratu dugu

baita erabiltzen ziren inauterietako zenbait elementu ere, adibidez, “Oilar beltza” eta “Inauteri eskea”. Badauzkagu kultur adierazpen gehiago aterako direnak ikerketa etnografikotik. Baina lan hau adibidez, EDBn sartu nintzenean moztu egin zen, orain aurrera doa baina erritmoa lasaitu egin da. Oso interesgarria da baina denbora faltagatik alde batera utzi behar izan dut.

EDBko lehendakari moduan, zeintzuk dira zure asmoak “Dantzariak” aldizkariari dagokionez?

“Dantzariak” aldizkariak erreferentzia-puntu bat izan behar du, bai dantza taldeentzat baita dantzazale eta folklorezale guztiontzat. Bertan dantza tradizionalari dagozkien aspektu guztiak era erakargarri batean landuak izan behar dira. Horretarako, Herri honetan kultura tradizionalaren arloa jorratzen duten hainbat aditu eta arituen lankidetza lortu behar dugu. Bidean gaude.

Eskerrik asko eta hurrengora arte!

Concurso de putxeras en Villaverde ("Pikizu").

HARRESI.ORG

Ventana multicultural de las Encartaciones vizcaínas

- Autor texto: bydej. Fotografías: "Pikizu", bydej -

Cuando entramos en internet y buscamos información relativa a ciertas festividades o eventos de una zona localizada del país, los resultados pueden ser apabullantes. Sin embargo, si nos centramos en una comarca de Bizkaia tan importante históricamente como las Encartaciones, el número de webs se reduce considerablemente, trazando una línea informativa muy específica alrededor de un sitio llamado www.harresi.org.

Esta página web es uno de los órganos de Harresi Kulturala Elkartea-Asociación Muro Cultural. Asociación creada en 2012, tiene como objetivos: la grabación de vídeos, o la obtención de fotografías en actos culturales y festivos de todo tipo; la edición y divulgación en la web del material obtenido por la asistencia a eventos culturales; la colaboración con otras asociaciones o entidades de cara a la obtención de imágenes para la difusión; la creación de webs y otros medios para la difusión de la memoria colectiva, la cultura, las fiestas, etc.; la recopilación y archivo de todo el material elaborado; la recuperación y clasificación de archivos analógicos de todo tipo; y la publicación impresa de trabajos de investigación.

Para llevar a cabo algunos o muchos de estos principios, el alma mater y uno de los componentes del equipo director, "Pikizu", ha puesto a disposición de la asociación todo su bagaje profesional, así como soportes y aparatos.

"Pikizu" grabando una entrevista. (bydej)

Web harresi.org

"Pikizu", o lo que es lo mismo J. T. Sáez Iturbe, es video cámara y fotógrafo con una larga experiencia en diferentes campos de actuación de los medios audiovisuales. Su trayectoria comienza a finales de los años 70 realizando cortos para, posteriormente, dedicarse a realizar publi-reportajes comerciales, documentales de festividades, eventos sociales, edición mensual de las video-revistas Clinex TV y TNE (Tele Noticias Encartadas), en los años 90. Asimismo participa en la fundación del canal IRM Channel (TV Streaming), organización de concursos fotográficos, impartición de cursos de fotografía, realización de la web de FotoSkylight y otras, publicación de libros históricos, etc.

Ha sido galardonado con diferentes premios: concursos fotográficos *"Marathon Alpine Galarleiz"*, *"Zallako Jaiak"*, o "Mercado medieval de Balmaseda", entre otros. Además, ha sido Presidente de la Asociación de Comerciantes de Balmaseda, de ASCUVI, Vicepresidente del colectivo cultural "León Felipe" de Balmaseda y en la actualidad es Presidente de Harresi y de la Asociación Fotográfica Skylight, de Balmaseda.

Las colaboraciones de Harresi con entidades culturales de todo tipo, privadas y públicas, sirven de continua relación y de apoyo en el orden socio-cultural: grupos de danza, asociaciones culturales encartadas, o el Museo de Las Encartaciones, entre otros. Otro apartado en el que incide la Asociación son las publicaciones impresas: el DVD: *"Fiestas de San Severino. El origen de las putxeras"; o los libros: "Balmaseda, siglo XX. Memoria gráfica"; "Balmaseda, ayer y hoy"; "Tradición taurina de Balmaseda. Volumen 1 (1528-1960)" y más recientemente el libro "Lanestosa, ayer y hoy".*

¿Y qué podemos encontrarnos en la web de Harresi? Un verdadero abanico de trabajos que van desde artículos hasta reportajes fotográficos. Las búsquedas pueden realizarse por diferentes vías: por fechas; individualmente por meses; por temáticas; y, también, por término personalizado.

Tanto la sede como el ámbito cultural principal de la asociación es Balmaseda, lo cual no quita su incursión en cualquier acto o actividad dentro del marco geográfico de las Encartaciones de Bizkaia, e incluso del exterior, a nivel histórico, folclórico o musical.

Los danzantes en la procesión de la festividad de la Virgen de las Nieves. Lanestosa, 5 de agosto de 2014. ("Pikizu").

En lo que se refiere a Balmaseda, podemos encontrar desde artículos directamente unidos a las historias de vida, como *"La vida de las mujeres antes de 1954 en Balmaseda. Cuando no había lavadoras"*, pasando por el *"Homenaje a los músicos de Balmaseda den la festividad de Santa Cecilia"*, hasta llegar a *"La recuperación de los carnavales en Balmaseda"*. La recuperación de antiguos materiales audiovisuales forma parte de otra labor anexa al respecto.

Pero, como ya se ha dicho la comarca de las Encartaciones, tiene un lugar destacado dentro de la web. Así tenemos algunos de los trabajos aquí presentados: *"Los segalaris de Arcentales", "Las mascaradas de Carnaval en Gordexola", "Las fiestas de San Cosme"*…

Mención aparte merece el último reto de Harresi. Este no es otro que la apertura al mundo festivo cántabro. Se han realizado varias grabaciones y, al igual que el resto de vídeos que pueden visualizarse, en estas aparecen entrevistas y la relevancia de los actos que las componen.

Las Asociación Harresi está realizando una serie de entrevistas a las personas mayores de Balmaseda con el fin de "Recuperar la Memoria Histórica de la Villa", en un proyecto patrocinado por el Gobierno Vasco. Para ello se ha creado la web "Memoria Histórica de Balmaseda, en la que se vuelcan loas grabaciones y algunos artículos relacionados. La dirección es **www.balmasedamemoria.com**

A pesar de que Harresi es un asociación relativamente moderna, ya que nació en 2012, el número de artículos, grabaciones y publicaciones es relativamente de importancia, formando todo ello un compendio, aunque acotado por el marco de referencia geográfica, muy a tener en cuenta de cara a colectivos culturales, entidades públicas, estudiosos e interesados que, en su devenir, buscan información actualizada de actividades en lo que se refiere al espacio público. La web, **www.harresi.org,** ha recibido más de 375.000 visitas en poco más de dos años de funcionamiento.

Zuberoko

XIBEROKO DANTZAK ETA DANTZARIAK

- Egilea: Jean Bordaxar -

Xiberoko dantzak ikusten ahal dira gehienik bi ikusgarrietan, Maskarada eta Pastorala.

Aitzina Pika

Xiberoan urte oroz herri batek antolatzen dü bata edo bestea, aitzinetik finkatürik düelarik urteak herrien artean, erran nahi beitü bi urte lehen Maskaradarentako eta bost urte aitzinetik Pastoralarentako.

Maskaradan parte hartzen düe herriko dantzari hoberenek, hori da ohitüra zaharra eta igante oroz horiek barrikada hanitxetan behar düe dantzan ari bi edo hiru hilabetez.

Pastoraletan ere agertzen dira dantzariak, hor satanez beztitürik, satan püntü zonbaiten emaiteko, alta, azken urte horietan ikusten dira jauntzi berriak eta dantza berriak bereziki Pastoraleko lantürik.

Dantzari hon baten egiteko urte hanitx behar da, eta hanitxetan, ikusten dira maleruski dantzari hanitx goizegi dantza ützirik, erran nahi dü, hogei urteak pasatü eta, pena da dantzari batek hor dantza ützi dezan, hor beit lizateke behar dantzari serioski lotü!

Dena den, dantzari hanitx bada orano Xiberoan eta herri güzietan taldeak badira ene ustez lehen-lehenik Pastoral eta Maskaradari esker.

Halaber, xiberotar dantzari hanitx hoberetü dira, bai dantza mailan eta kreazione sailean ikusgarri berri zonbaiti esker, horietan: Aitzina Pika, Amaiur, Nola bizi hala kan-

ta, Aidez Aire, Dinbili Danbala, Txilintxori, Roger Idiart Gurekin, Bakuna show….

Egün Xiberoan dantza ederki badoa, motiko güti, bena badira beti zonbait agertzen direnak fedearekin, eta neskatilak beti hor dira, eskertzen ahal dütügu egiazki beren lanaz.

XIBEROAN MUSIKA ETA KANTOREA

Xiberoan musika tradizionala entzütan ahal da herri zonbaitetan, bat, bi edo hiru musikalari dantza taldeen lagüntzale, bena halaere guti dira orotara Xiberoan.

Egünko egünean, pastoral eta ikusgarri berrietan badira hogeien musikalari hüilan, algarrekin joile.

Kantoreak entzütan dira kantaldi zonbaitetan, Pastoral, Maskarada eta ikusgarri güzietan. Talde hanitx bada Xiberoan, gehienik entzütan ahal dira a cappella maneran (Xiberoko ohitüra zaharra) eta güti musika tresnekin.

Horietan bada neskatila eta gizon talde, eta ere bakarka, bikote, hirukote edo laukote, denek eskentzen düe kantore zahar eta berri lekü hanitxetan, zoin aldiz, Frantzia osoan eta ere mündüan zehar.

Kalitate honekoak dira bai müsikalariak eta ere kantariak, gaztetik ikasi düe müsika tresnen joiten edo botzaren erabilten.

Talde hanitxek beren kreazioneak eskentzen dütüe, ahatze gabe kantore zaharrak, horietan Etxahun Barkoxe eta Irurikoarenak, etab...

ZER ERRAN KULTURAZ ?

Ene ustez, Xiberoan ez da sekülan izan orai bezain azkar kültüra.

Herri hanitxetan orano Maskarada sortüko da, eta urte oroz Pastorala ikusten ahal da, azken bi urte horietan bi Pastoral ere izan dira emanik.

Ikusgarri berri bat edo bi agertzen dira han eta hor xiberotar zonbaitek asmatürik, kreazale eta idazle onak badira ezagütürik Eüskal Herri osoan.

Antzerkia ez da hain azkar, bena sail hortan ere, izan dira zonbait sorkuntza arrakasta handikoak (Kanbera doble, Txilintxori, Barbau Hamalau).

Eüskara etxekitzen badügü, Xiberoan beti izanen da kültüra azkar, eta ene ustez ez da aski entzüten karrikan Eüskara, hori bürrüz badügü denek lan bat egiteko.

ABALTZISKETAKO TXANTXO DANTZA

*Abaltzisketan (Gipuzkoan), 300 biztanle inguruko herrian, Ihauteri igandean **Txantxo dantza** dantzatzen da. "Makil dantza" bat da, eta esan daiteke Espainiako Gerrate Zibilaren aurretik ospatzen zen Ihauteri jaiaren "hondarra" dela. Izan ere, Gerrate Zibilaren aurretik, herri guztiak hartzen zuen parte jai horretan.*

- Egilea: Jon Zubeldia -

José Zubeldia eta Santiago Garmendia, 1989.
Argazkia: Emilio Xabier Dueñas

Dantzariak, bi "mozorro" eta Soinu-jolea, 1971.
Ezkerretik hasita 5. dantzaria da, Jose Luis Zubeldia.
Argazkia: Anonimoa

1989.urtean izan da Ihauteri Jai hau berreskuratzeko azken ahalegina. **Jose Luis Zubeldia Gorostidi** aritu zen lan horretan. Jose Luisek, berak dantzatu zuen 1971. urtean, baina, 70.hamarkadaren bukaera aldetik aurrera, dantzatzeko ohitura galdu zen. 1971. urtean berarekin batera dantzatu zuten dantzariengandik, informazioa biltzen saiatu zen.

Informazioa biltzen ari zela, Joxe Zubeldia Artano (1913-I-7 / 2001-I-31) eta Santiago Garmendia Garmendia (1914-VIII-2 / 2010-IX-

Abaltzisketako "Txantxoak", 1947. Argazkia: Anonimoa

21) dantzari ohiekin topo egin zuen. Biak ere abaltzisketarrak ziren eta, Txantxo dantzaren inguruko xehetasunez ondo gogoratzen ziren. Hala nola, dantzarien jantziaz, musikaz, koreografiaz eta "mozorroek" Ihauteri Konpartsa horretan zuten garrantziaz ere.

Dantzan bi mozorrok hartzen dute parte eta garrantzia handia dute. Lehenengo mozorroa, garai bateko baserritar jantziarekin jantzita, Konpartsan aurrena doa, eskuan daraman erratzarekin, dantzatu behar duten lekua garbitzen duelarik. Bigarren mozorroa, aurrenekoaren antzera jantzita doa baina, aurpegi belztuarekin, ezagutu ez dezaten. Saskia darama makil batetik zintzilikatua XX. mende bukaeran, pertsonai hau bera arduratzen da, baserri edo etxeetan emandako dirua bildu eta jasotzeaz, izan ere Ihauteri konpartsa honek Abaltzisketako baserri eta etxe guztietan dantzatuaz, ohitura den "Puska biltzea" egiten du. Gerra Zibilaren aurretik ordea, "Puska biltzean", baserriko produktuak jasotzen ziren, barazkiak, txerri haragia, arraultzak etab. Horixe zen baserri eta etxe bakoitzak, festa ospatu zedin ematen zuten "laguntza". Baina bigarren mozorro honek ez zuen jasotzen emandakoa bakarrik, "propinatxoren" bat ere "lapurtzen" zuen, etxekoak edo baserrikoak dantzariei begira zeuden momentua aprobetxatzen zuelarik horretarako.

TXANTXO DANTZAREN DATU HISTORIKOAK

Bai Joxe Zubeldiak, bai Santiago Garmendiak eta baita ere Bedaioko txistulari zen **Juan Antonio Sarasola**k ziotenez, **1930**. urtea baino lehenago ere ospatzen zen Ihauteri Jaia Abaltzisketan. 1930. urtera arte, Txantxo dantzaren Ihauteri konpartsako musikaria Juan Antonio Sarasola txistularia izan zen. Urte honetan bertan ordea, Abaltzisketako Larraitz auzoko "trikitilari" bat hasi zen musikari lanetan konpartsan.

Badirudi, 1930. urtera arte, dantzarien janzkera ez zela uniformea edo nahiko informala zela, bakoitza nahi zuen modura edo ahal zuen modura jazten zela. Urte honetan jantzia uniformatzea erabaki zuten, denak berdin janztea:

- Galtza eta alkondara zuriak, kolore ezberdinetako zintekin apainduak.
- Gerriko gorria.
- Txapela gorria, kolore zuriko "mantilla" antzeko sare moduko bat txapelara josia, txapelaren erdian borla zuri haundia eta txapelaren ixkinetan borla zuri txikiak zintzilik.
- Edozein koloretako gorbata eta koloretako bi

Mozorro "lapurra" "puska" jasotzen, 2004-2-22. Argazkia: Jon Zubeldia

Mozorroa, Txantxo dantza dantzatu behar duten lekua garbitzen, 2004-2-22. Argazkia: Jon Zubeldia

mantoi sorbaldetan, "bandolera" modura lotuak.
• Gomazko abarkak.

